



ARGIA

EUSKAL HERRIKO

BILGUNE FEMINISTA

20 urte akuilu lanetan

30-36. orriak

#2.781 | 2022 / 06 / 05 | 4,00 €



*"Zangozan
'frantsesa' nintzen,
ez euskaldun purra!"*

14 | KATHERINE BIDART



*ARGIAren proiektua
aurkeztu dugu
Vienan*

24 | HEDABIDEEN JABETZA



*W. G. Sebalden
'Austerlitz'
euskaraz*

44 | IDOIA SANTAMARIA

UDAKO TOPAKETAK 2022

Uztailak 4, 5 eta 6, Donostian



hh
hik hasi

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Guipúzcoa

Donostia Udalak

Ikastaroak:

Lehen Hezkuntza eraldatzen | Argiaren pedagogia | Neurosiaren prebentzioa bizitzaren hasieran | Pintura, buztina eta mugimenduen bidezko espresioa | Haurtzaroan bidelagun Montessoriren ikuspegitik | Jolastokia, eskolako espazioa? | Mugak jarri autoestimua zainduz | Natura eskura | Hausnarketa lantzen elkarriketa kooperatiboaren bidez | Heziketa eta astrologia psikologikoa: iraultza pedagogiko bat | Heriotzaren lanketa | Dislexia | Entrenamendu mentalaz eta ametsak aztertuz, zoriontsu! | Euskara bereganatzea Haur Hezkuntzan | Irakasle berriak Lehen Hezkuntzan | Nerabeei hizkuntza-sozializazioan laguntzearen erronka | Sortuz eta sortuz, kontatu | Eskola kirola gogoeta kolektiborako tresna | Sormenean hezi, kulturen bizi | Irakaslearen lanketa pertsonala | Zaintza guneak: norbera zainduz, bestea zaindu | Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan | Zirimir: oinarritzko yoga teknikak ikasgelatan ongizatea lantzeko | Neuroludokinestesia | Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna pedagogikoa | Familiaren eta eskolaren arteko elkarlana ikuspegi sistemikotik | Zuzendaritzarako formakuntza sistemikoa | Bizitzaren eta bizitzarako pedagogia sistemikoa | Gamifikatu... eta irabazi! | Matematika eskuetan, goazen jolastera! | Fisikaren eta Kimikaren ikaskuntzan IKD3 ereduak.

www.hikhasi.eus

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | MIKEL ZURBANO
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | MIKEL BASABE
- 21 | EVA PEREZ-PONS
- 22 | JON ALONSO

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: PACO DOÑATE
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU


AZALEKO IRUDIA: **EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


24 | **HEDABIDEEN JABETZA KAPITALISMOTIK HARAGO**

ARGIA gonbidatua izan da Vienan egin den *Jabetza, hedabideak publikoak* konferentzian parte hartzeko eta Europako beste hedabide independente eta kritikoei esperientzia trukea egiteko baliatu du aukera. Peru Iparragirrek egin du bidaia haren kronika eta partekatu ziren ideien laburpena. Lander Arbelaitez Austriako Daniel Grabner ikerlaria elkarrizketatu du, eta honek azaldu du publizitate instituzionala nola banatzen den Austrian eta banaketa horrek zer ondorio dituen herrialde horretako hedabideen panoraman.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Papergabeen lan-indarraren xurgapenari esker ere dabilta aitzina banaketa plataformak

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | KATHERINE BIDART

“Haurrak maitatzea da andereño baten egitekorik handiena”

Miel A. Elustondo

30 | FEMINISMOA | EH-KO BILGUNE FEMINISTA

“Bageneukan iparra, baina beste jira bat ematera ausartu gara etengabean”

Jenofa Berhokoirigoin

37 | NAZIOARTEA | LETICIA VÁZQUEZ

“Hezkuntza-sistemak irakasten digun guztia zalantzan jartzean oinarritzen gara”

Asier Basurto

44 | KULTURA | IDOIA SANTAMARIA

Austerlitz, memoriaren korrante ezkutak

Danele Sarriugarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitez, Leire Artola, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametza

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.


EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Kastaren aurka

Azken hamarkadetan munduan barna barreiatu dira klase politikoaren aurkako protesta herritarrak. Espainiako Estatuan kasta deitu izan dioten horren aurka –lehen, orain gobernuakide esaten diote–. Bada, elite politiko horren aurkako gune beroetako bat Sri Lankan dago egun. 50 egunetik gora daramatzate kalean presidentearen eta haren gobernuaren dimisioa eskatuz, herrialdea krisi ekonomiko eta politiko gorrian dagoela. Erantzun ofiziala, momentuz, ohikoa izan da: poliziak eta militarrek. Igandean, Gotabaya Rajapaksa presidentearen egoitza ofizialera doan errepidean poliziak ezarritako burdinazko barrikadak bota dituzte milaka ikaslek.

📷 S. KODIKARA / AFP ✍️ AXIER LOPEZ



Donostiako burges “modernoek” nola egin zuten dirua?

URKO APAOLAZA AVILA

Koldo Mitxelena Kulturunean *Aurrera eginez* erakusketa jarri dute, José Brunet Berminghamek XIX. mendearen azken herenean ateratako argazkiekin, Donostiak izandako “hiringintza-eraldaketa handiena” ikusteko.

Brunetarrak XVIII. mendean iritsi ziren Kataluniatik Donostiara eta aitzindari izan ziren industrian eta azpiegiturretan inbertitzen, merkataritzan eta bankuekin lorturiko kapitalarekin. Erakusketa antolatu duten Gipuzkoako Aldundiko eta Donostiako Sustapeneko arduradunek “iragana miresten” geratu ez zen Donostiaren “aurrerakuntza” azpimarratu dute, eta diote José Brunetek “modernitatearen aldeko apustua” egin izanari esker ditugula argazkiok orain.

Baina zer gehiago dakigu XIX. mendeko burgesia horretaz? Adibidez, nola metatu zuten dirua José Brunet eta bere ahaideek, hain garrantzitsu izan omen ziren inbertsio horiek egiteko?


AZUKREA ETA DONOSTIA

Brunet familiak kapital pilaketa handiena Amerikako azukre eta kakaoaren garraioarekin egin zuen: 1823ko balantze batean ageri da biltegietan batez ere “azukre kubatarra” zutela. Eta badakigu lan-esklaboa erabiltzen zela orduan Kubako kanaberetan... 1820tik 1868ra 375.000 esklabotik gora eraman zituzten Afrikatik Kubara. Ez ziren gutxi azukre-ola edo *ingenioak* zituzten euskaldunak, Donostiako Benito Zuaznabar kasu -400 esklabo zituen *Urumea* izenekoan-. Testuinguru horretan egin zuen dirua Brunet konpainiak; Habanan ordezkari bat izatera iritsi ziren merkataritza hori hobeto kontrolatzeko.

Tabakoarekin ere egin zuten negozioia -Collado eta Queheille familiekin batera negozioa monopolizatu zuten-, eta esklabotzaren munduko epizentroetako bat zen New Orleansetik kotoia ekartzen zuten donostiar burgesek. Kotoiarena ez da debaldekoa. Brunetek 1845ean ehungintzako fabrika ezaguna sortu zuen Lasarte-Orian.

ESKLABISTAK BAZKIDE

Diru hori industrian ez ezik, azpiegituratan ere inbertitu zuten, esaterako



Goian, Brunet familiaren eskurtsioa Zarautzera. Behean, langileak Tolosako ehun fabrika batean, eta Donostiako Ondarretako tunela egiteko zama lanetan. Erakusketako argazkiak dira guztiak.



Donostiako lehen tranbiaren eraikuntzan. Konpainiaren akziodun nagusietako bat ziren brunetarrak, Antonio López Comillasko markesaren klanarekin -esklabista izateagatik Bartzelonan eskultura kendu zioten bera-, edo Patricio Satrustegui donostiarrarekin batera.

Lopezek eta Satrusteguiak Kuban kabotaje enpresa bat zuten elkarrekin, esklaboak irlako toki batetik bestera garraiatzeko -egun hiribide batek Satrusteguiaren izena darama Ondarretan-. Bada, Satrustegui eta Brunet ikus ditzakegu Donostiako tranbiaren konpainian akzioak partekatzen.

Hortaz, joan gaitezen erakusketa ikustera, baina erabiliko ditugun betaurrekoak ez daitezela izan iragana mires-teko, baizik eta Donostiak XIX. mendean izandako eraldaketa eta “aurrerakuntza” handi horren atzean zegoenari erre-tratu osoago bat egiteko. ●

.....

Artikulua osorik eta argazki gehiago 'Angelu itsua' blogean: www.labur.eus/q2zSI



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Odi et amo



ARITZ GALARRAGA

Eta basoaren kontra, noski, hiria. Kontrara, behintzat, lehenik basoak inguratzen baitzuen espazio humanizatu, eta gero espazio humanizatuak basoa. Hori da eredu industrialak ekarri zuen giza antolamendua. Eta antolamendu horrek hiri handien egikaritzea. Adibidez, Paris, zeina XIX. mende erdialde-zen munduko hiriburu, munduaren erdigunea. Bertan jaio zen, hain zuzen, 1821ean, Charles Baudelaire. Eta, esaten denez, ez zuen bereziki maite jaiotzen ikusi zuen hiria.

Gezurretik ez du: hiri moderno mugagabea, bere zarata eta amorru guztiarekin, harentzat baita "jendetza", "kaosa", "hiri izugarria". "Goizeko oren batean" poeman, esaterako, zera dio, Orpustanen bertsioan: "Azkenean! bakarrik! Ezta gehiago karrosa berandu eta ahitu batzuen burrunba baizik entzuten. Oren zenbaitez, ixila ukanen dugu, atsedena ezpada. Azkenean! gizabekokiaren tirania ezeztatu da"; eta aurrerago: "Bizi laztagarria! Hiri laztagarria!". Baina, ze gauza bitxia, hiriari zion gorroto horren ondoan, kontxo, agertzen da sentimendu bat konplexuagoa, tentsio, anibalentzia, dualtasun bat, lerro honek ezinhobeki laburbiltzen duena: "maite zaitut, hiri doilorra!". Alegia, aldi berean zela gorroto eta adoramendua, aldi berean erakartzen eta pusatzen zuela mundu modernoak, nor eta modernitatearen asmatzailea. *Odi et amo*, beraz: horrorea eta estasia, errefusa eta desioa garaiko aldaketa handien aurrean. Antoine Compagnonek argitzen digu: antimodernoak ordezkatzeko egiazko modernitatea, bizitza modernoari aurre egiten dionak, harekin ezinbestean lotuta egonagatik ere. "Beltxarga" poemak, beraz, islatuko luke ondoen poetaren aldartea: "Paris zaharra ez da existitzen (hiri baten itxura / Arinago da aldatzen, ondikotz! hilkor baten bihotza baino)".

Sánchez-Ostizek zioen: "hiria, aldekoa ez bada, lehenbait lehen atzean utzi beharreko giltzarrapo bat da". Baudelairek, hala ere, ez zuen sekula Paris kitatu, hain handia zen harekiko dependentzia. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Hezkuntza

Jaiotze tasaren beheranzko joerak ikasgelak eta ikastetxeak itxi behar izatea ekarriko duela aurreikusita, Haur eta Lehen Hezkuntzan ikasgeletako gutxieneko ratioa jaitsi nahi du Eusko Jaurlaritzak: gutxieneko ikasle kopurua 17tik 11ra jaitsi nahi du sare publikoan, eta 13ra sare kontzertatuan.

Pablo González

Beste hiru hilabetez luzatu dute Pablo González kazetariaren behin-behineko atxiloaldia Poloniako epaitegiek. Baldintza beretan mantenduko dute, bisitarik edo senideei telefono deirik egiteko eskubiderik gabe. Dagoeneko 90 egunetik gora daramatza preso Polonian.

Adierazpen askatasuna

Espainiako monarkia iraintzeagatik sei hilabete eta bi urte arteko espetxe zigorra aurreikusten du zigor kodeak. Lege hori bertan behera uzteko eskatu dute EH Bilduk eta ERCK, "benetako demokrazia batek pertsona guztiek beren ideiak askatasunez adieraztea" bermatu beharko lukeela argudiatuta.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

SATE



ULA IRURETAGOIENA

U rte batzuetatik hona, SATE modako hitza bilakatu da hiztegi arkitoniko eta etxebizitza-erakin komunitateetan. Eraikinari beroki bat jartzearen parekoa da, berezko fatxadaren gaintik tenperatura aldatetatik babestuko gaituen azal bat gaineratzea. Eta aurrerantzean gehiago entzungo delakoan nago, Europatik jasoko diren dirulaguntzek gure eraikinak etorriko denari hobeto prestatzeko teknika bultzatzen baita, eta emaitza oso onak ematen dituelako. Ohartuko zineten gure kaleetan aldarmioak topatzen ditugula gure ibilbidean geroz eta gehiago, garai batean bezala, fatxadak garbitzeari ekin genionean. Oraingoan, eraikinak termikoki hobeto funtzionarazteko da, energia eta ekonomiaren auzian arkitekturak eskaini dezakeen baliabideetako bat.

Ez da ohikoa arkitektoek plaza publiko hartzeari gizarteraturiko gai batean posizionamendu argi bat agertzeko, ez gara kolektibo polemikoa, are gutxiago gizaratean onarpen altuko gai baten inguruan. Eta SATEarekin gertatu da. Eraikuntza teknikaren onurak ezbaian jarri gabe, teknika honen ondorioetan ardura dagoela azaldu da. Jaka berriak aurreko fatxadako arkitektura ukatzen duenean, berokiak metalezko txapa baten akabera duenean eraikinaren berezkotasunak ezabatuz, beste eraikin bat azaltzen da paisaia urbanoan. Eraldaketaren kontrako erresistentzia baina, arkitekturaren aldeko garrasia da, irudimen kolektiboan fatxaden arkitekturak sortzen duenaren suntsipen baten alarma bat. Kalitate arkitonikoa eskatu nahi da materialtasun eta teknikaz harago; eraikinaren konposaketa, materialen ehundura, leiho eta hutsuneen gorpuzketa bolumetrikoa, kolorearen erabilera... aintzat hartzea. Aurreko belaunaldiak utzi diguten paisaia urbanoaren oinardea zaintzea alegia; paisaia hau ez dute izen argitsua duten arkitektoek burutu, ez daude babes bereziko zerrendan, baina garai bateko kontakizuna dira, xumeak eta duinak. Ekologiaren izenean teknologiaren banderak itsutu ez gaitzan eskatzen dugu. ●

ANALISIA



Segurtasunaren bidesaria

PERU IPARRAGIRRE

E torkizuna ez baita hein handi batean eraikitzen den zerbait besterik, etortzekoa den errepide sarea diseinatzeko lanetan ari da dagoeneko Espainiako Gobernua. Etorkizuna irudikatzerakoan gidaririk gabeko auto elektrikoak, semafororik gabeko hiriak, istripurik gabeko errepideak erraz etortzen dira gogora, ez baitira ideia horiek gutxitan errepikatzen hedabideetan. Hori guztia martxan jarri ahal izateko, ordea, errepideko –espazio publikoko– elementu oro kontrolpean edukitzea ahalbidetuko duen azpiegitura ezinbestekoa da.

Azken egunetan zabaldu den berri baten arabera, aurrera doa Espainiako Estatuko Trafiko Zuzendaritza Orokorrak (DGT, gaztelaniaz) proposatutako DGT 3.0 plataforma, eta 2026rako martxan egongo da. Hiru milioi eurotik gora ordaindu dituzte dagoeneko plataforma garatzeko, eta datozen lau urteetan amaituko dute lan hori, okerrik ezean.

Errepideko elementu eta ibilgailu guztien informazioa bateratuko duen plataformaz gain ibilgailuek eta bestelako erabiltzaile eta elementuek informazio hori helarazteko bideak ere behar dira. 2030. urterako bost urte baino berriagoak diren auto guztiak sarera konektatuta egongo omen dira, baina hori baino lehen ere izango da plataforma elikatze modurik: GPSaren bidez, mugikorraren bidez (modu pasiboan eta erabiltzaileak berak emandako informazioaren bidez) eta baita 2026tik aurrera autoan nahitaez eraman beharko den larrialdietarako argiaren bidez ere. Orain arteko triangeluak ordezkatzeko dituen V-16 delakoak geolokalizazioa izango du, zirkulazioa arautzen duen administrazioak eta gainerako erabiltzaileek errepidean gertatzen diren matxura eta gisako gertakarien berri izan dezaten une oro.

Ondo arrazoitu du Gobernuak plataformaren xedea. Errepidean zero hildako, zero zauritu, zero buxadura eta zero emisio sortzea da helburua. Horretarako, errepidetako eta bertako erabiltzaileen egoera denbora errealean jasoko duen plataformara sarbidea izango dute udalek eta administrazio publikoak ere. Datuak modu anonimoan kudeatuko badituzte ere, “arrisku egoeratan” Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak ibilgailuen datuetara sarbidea izango duela zabaldu dute hainbat hedabidek.

Erabat automatizatutako etorkizun idilikoaren bidesaria ezinbestean hori baita, dirudienez; segurtasuna bermatzen duenak kontrola ezartzen du, herri eta hirietan ugaritzen ari diren segurtasun-kamerekin bezala. ●

%12,6

da euskararen kaleko erabilera 2021 ean, Soziolinguistika Klusterraren azken txostenaren arabera. Eremu euskaldunenetan jaitsi egin da. Proposatu dute hazkundea lortzeko berrikuntzak eta egokitzapenak ezartzea hizkuntza politiketan.

70.000

euroko isuna, etxegabetze bat oztokatzen saiatzeagatik. Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak jarri dizkiete isunak Gasteizko Etxebizitza Sindikatuko kideei, egotzita ez zituztela bete pandemian ezarritako neurriak.

9

euro hilean ordainduta, hiri barruan garraio publikoan eta herriarteko trenetan aritu ahal izango dira Alemaniako biztanleak uda honetan. Energiaren prezio gorakadaren aurrean hartu du neurria Gobernuak.

“Alaba atxilotu zutenean, argi neukan torturatuko zutela. Iragarrita zegoen”



MARI NIEVES DIAZ

Aste honetan estreinatu dute *Bi arnas* dokumentala, Iratxe Sorzabal presoaren eta bere ama Mari Nieves Diazen arteko harremana ardatz.

'BI ARNAS' DOKUMENTALA

“GREZIAKO MIGRATZAILE KANPALEKUETAN DAUDEN PERTSONA ZAURGARRIEI UKRAINAKO ERREFUXIATUEN PAREKO HARRERA EGITEA ESKATZEN DUGU”

ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK, MUGAK ZABALDUZ

Euskal Herriko parlamentuei egin diete eskaria.

2022-05-25

“Baztango euskara ‘nafartzen’ ari da eta gero eta euskara batuagoa egiten dute haurrek”

PASKUAL REKALDE

Euskaltzain oso izendatu berriak bere sorterrian egin du sarrera-hitzaldia, Amaiurren.

2022-05-23



TEKNOLOGIA

Egokitzea baino, jasatea



DIANA FRANCO

Octavia Buttlaren liburu bat nabil irakurtzen: *Odol-alabak eta bestelako kontakizunak*. Zientzia fikziozko idazlea da Buttler. Bere fikziozko kontakizunetan, izaki ezberdinen arteko harremanak aztertzen ditu, lurtar nahiz estralurtar, eta gizakiak askotan egoera berrietara egokitu beharrean aurkezten ditu. Planeta berri batera heldu gara eta hango espezie nagusiarekin sinbiosi bat sortzeko modua bilatzen dugu gure existentzia ziurtatzeko, edota espezie estralurtar bat dator gure mundura, akabatu gaitza-keena, eta zelan egokitu bilatzen dugu gure existentzia ziurtatzeko...

Madriren izan naiz topaketa batean eta Bizitegi Elkarteko lagun batek ideia bat bota zuen: kalean dagoen jendea ez dela soilik kalean bizi dena. Gure gizartean bada jende bat egoera oso bortitzetara egokitzeko moduak bilatzen dituen bizitza aurrera eroan ahal izateko, kalean ez egoteko. Tratu txarrak, bortxaketak... pairatzeko prest daude, kalean aurkituko dutena okerragoa delako. Baina egoera horiei, egokitu baino, jasan deitu beharko genieke.

Human Rights Watch erakundeak txostena atera du, EdTech (hezkuntzarako teknologiak) ardatz hartuta: *"Students not Products"* (ikasleak ez produktuak). Txostenak salatzen du pertsonok, kontzientzia izan barik, hezkuntzatik urrun dauden interesak dituzten multinazional teknologikoen zelataritza praktikak pairatu ditugula. Pixkanaka errealtate hau ulertzen gabilta, beharbada batzuek buelta emango diogu, baina ez dezagun ahaztu gizartearen parte bat horrelakoak jasateko prest egongo dela bizitza aurrera ateratzeko. Ez dutela beste biderik izango. ●

NAZIOARTEA



J. SARMIENTO / GETTY IMAGES

Historia egiteko prest

AXIER LOPEZ

Gustavo Petrok irabazi egin du botoen %40,32rekin Kolonbiako hauteskundeetan lehen itzulia. Alde handiz lortu du garaipena, baina ez behar bezain zabala ekainaren 19ko bigarren itzulia saihesteko.

Sorpresa izan da Petrok ez duela aurrean izango Kolonbiako azken 20 urteetako aktore politiko nagusia: uribismoa. Elite ekonomikoen eta komunikabide nagusien babesa izanik ere, Federico Gutiérrez uribista lehia-rik kanpo geratu da (%23,91), Iván Duqueren gobernuaren kudeaketak, protesta sozialen aurkako errepre- sioak, Bake Akordioaren ezarpenaren porrotak eta pandemiaren kudeake- tak eraginda, ziurrenik.

Petrok indarrak neurtuko ditu eskuineko populista Rodolfo Hernán- dezen (% 28,15) aurka. Trumpzaleen estiloa duen hautagaiak, aipu aurre- rakoirekin bat tartekatzen du eskuin muturreko ikuspegi nagusiak biltzen dituen hizkera eta diskurtso bizietan. Bere kanpainaren ardatz nagusia "poli- teria eta ustelkeriaren" aurkako borroka izan da. Petro inolaz ere bo- terean ikusi nahi ez duten uribisten eta elite ekonomikoen laguntza izan- go du Hernándezek bigarren itzulian.

Gustavo Petro hala definitu du Ni- kolas Yepes irakasle eta analista poli- tikoak, hauteskunde kanpainako dis- kurtsua aztertuta: demokrata liberala politikan, keynesiar sozialdemokrata

ekonomian, pluralista ekologista gi- zartean eta katolikoa arlo espiritua- lean. Baina, era berean, Petrok aho bizarrik gabe adierazi du Kolonbiako pertsona eta enpresa aberatsenen al- deko politikak eraldatu nahi dituela, talde mediatikoen jabeetatik hasita. Etxalde handien lurak eman nahi dizkie nekazariei.

Aberatsen interesen aurkaritzat jo du bere burua Petrok, eta hori arrisku handiko kirola da Kolonbian, hango eliteak hiltzaileak baitira. Luis Carlos Galán, Jorge Gaitán eta beste politi- kari presidentegai batzuk hil dituzte azken hamarkadetan. Eta zer esanik ez indar paramilitarrek erail edo de- sagertutako zerranda izugarria: militante sozialak, indigenak...

Ezkerreko hainbat erakundek ba- besten duen hautagaiaren garaipena zerbait historikoa izango litzateke Kolonbian. Irakurri besterik ez dago Sandra Ramírezen hitzak, Komun- en alderdiko senataria, FARCen arituta- koa 20 urte baino gehiagoz, Manuel Marulanda *Tirofijo* gerrillari histori- koarekin batera: "Itxaropen handia dut Petroren garaipenean jarrita. Ko- lonbiak 200 urte baino gehiago da- ramatza indarkeriaren, mafiaren eta ustelkeriaren bidez gobernatu duen klase politikoaren eskuetan. Hau au- kera historikoa da hori aldatzeko".

Hurrengo bi asteak tentsio handi- koak izango dira Kolonbian. ●

Hiriko zuhaitzen onurak

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, hiriko aire kalitatea hobetzeko **3 PERTSONAKO** gutxienez **ZUHAITZ 1** beharrezkoa da eta **10-15 m²** eremu berde, **BIZTANLE** bakoitzeko.



Airearen temperatura
2 eta 8 °C artean
jaisten dute



Hiriko kutsadura
filtratzen dute



Uraren jarioa doitu
eta uraren kalitatea
hobetzen dute



Urtean 150 Kg.
CO2 xurgatzeko
gai dira



Janaria prestatzeko
eta berotzeko egurra
ematen dute



Elikagai iturri dira



Pertsonen osasun
fisiko eta mentala
hobetzen dute



Aire egokituaren
erabilera %30
murrizten dute eta
berogailuarena %20



Hiriko bioaniztasuna
areagotzen dute



Lurraren balioa
handitzen dute

Iturriak: Mar Thoaria; Elikadurarako eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea.

Bertsolaritza

Haizea Beruete Lopetegi bertsolari iruindarra zendu da, 28 urte zituela. Bertsolaritzako hainbat esparrutan aritu zen Beruete. Nafarroako Txapelketan parte hartu zuen, banakakoan zein taldeka. Bertso eskolako irakasle, eta begirale bertso udalekuetan. 'Gure Aldetara' proiektuan parte hartu zuen.

Ingurumena

Labarretan pilatutako plastiko eta hondakinak bildu eta flysha garbitzeko goiz-pasa egin du Mutriku, Deba eta Zumaiako euskal kostaldean dagoen Geoparkeak. Urtero antolatu ohi du auzolana kostaldea garbitu eta herritarrengan "kontzientziazio" lana egiteko.

Palestina

Pasa den asteburua gogorra izan da Palestinan: Israeldar soldaduek gutxienez 219 zibil zauritu dituzte, horietatik 16 balaz, palestinarren eta Israelgo segurtasun indarren arteko liskarretan, Zisjordaniako Nablusen. Jerusalem ere liskarrak izan dira, "banderen martxaren" testuinguruan.

PAPERGABEEN LAN-INDARRAREN XURGAPENARI ESKER ERE DABILTZA AITZINA BANAKETA PLATAFORMAK

Hainbat ikerketa kazetarik plazaraturikoa baieztatu du Bruselako Enpleguaren Ikuskaritzak: guneka, plataforma numeriko erraldoientzat dabiltzan banatzaileen erdia baino gehiago papergabea da. Flexibilitatea muturrera eramanez, langileen eskubideen bermea saihesteko tramankuluak dauzkate Uber Eats eta Deliveroo gisako konpainiek –tartean langile autonomo gisa jarduten dutelako banatzaileek–. Lan baldintza kaskarren zerrendan beste bat gehitzen zaio, ordea, papergabeari: plataformarako sarbidea paperak dauzkan bati erosiz eta pagaren zati bat honi banatuz, esplotatua are esplotatuago dago. Uste baino orokortuagoa dugun errealitatea dugu hori.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Bruselan diharduen Enpleguaren Ikuskaritza seriozki jarri da plataforma numeriko erraldoientzat dabiltzan banatzaileei begira eta deigarria da ikerketak plazaraturikoa: Belgikako hiriburuko banatzaileen erdia baino gehiago da papergabea –aurten bideraturiko 43 kontroletatik 24tan langileak ez dauka paperik–. Gehienak Uber Eats eta Deliveroo plataformentzat ariturikoak dira, hots, sekulako etekinak egiten dabiltzan multinazionalentzat. Hiriko punta batetik bestera dabiltzan banatzaileak ez dira lan hitzarmen bidez plataforma horiei lotuak, autonomo estatutua daukate, algoritmoen bidez plataformak zabalduriko misioak betetzeko. Muturreko flexibilitatea dakar horrek, azken finean Lan Kodeak bermatzen dituen eskubide eta betebeharrak saihesten dituztelako plataformek.

Zifra horrek islatzen digu badaudela papergabeen ezintasunaz eta muturreko miseriaren baliatzen direnak ere diru kotsia irabazteko. Zehazki, herritartasuna daukan pertsona batek bere izenean bideratzen du plataformarekiko lotura, ondotik, komisioren baten truke papergabe bati utziz izena eta sarbidea –“izen-mailegatzaila” bihurtuz, zuzenbideko ter-

minologian–. Plataforma ezberdinetan inskribatuz eta etorkin ezberdinei bedera salduz, diru-iturri esanguratsua daukate horietariko batzuk. Prekarioak are prekarioagoa esplotatzea, bere prekaritatea doi bat arintzeko. Horretan gara.

Hainbat inkestaren arabera, ordainsariaren erdia arte eskatzen diete, hondarrean lanordua 2,5 euroko soldatara jaitsiz. “Autonomo horiek esplotatzaile bihurtu dira, beste baten lanetik etekina metatzen dabilta, artetan hilabetean 1.000 euro jaso arte eta hori bizikletan ibili gabe!”, *Deliveroo, Uber Eats : auto-entrepreneurs précaires et esclavage moderne* (“Deliveroo, Uber Eats: autonomo prekarioak eta esklabotza modernoa”) erreportajearen irakurri daitekeenez. Izan zitekeen bestela, hots, kapitalismoak bideratu muturreko flexibilitate horretaz baliatu inolako baliabiderik ez daukanari diru iturri baterako sarbidea eskaintzeko –hots, gauza bera, baina kitorik eta elkartasunetik–. Baina oro har, gailentzen dena ez da eskuzabaltasuna. Afrika iparraldean, Afganistan, Siria, Pakistan zein Hego Ameriketako, jatorri ezberdinetakoak dira banatzaile papergabeak.

Belgikako Banatzaileak Borrokan kolektiboko Nada Ladraak azaltzen digu sektorearen bilakaera: “Banatzaileen

profila aldatu da: hastapenean, gazteak ziren Uber eta Deliverooentzat banatzen zutenak, ikasleak, klase ertain-apalekoak. Ez zen gaur egun ikusten dugun prekaritatea”. Plataforma horietan are flexibilitate gehiago bideratu izanaren emaitza da hori –ordainketa banaketa kopuruaren arabera ez eta lanordua- ren arabera; distantzia luze zein labur, apairua bero heltzeko betebeharra; eta beste–: “Lan baldintzen okertzearekin zeinek du segituko: prekarioenak, beharrezko direnak, beraz askotan papergabeak”. Jakina da zer nolako arriskua dakarren gizarte asegurantzarik gabeko banaketa ahal bezain laster egiteak –bizikletaz edo scooterrez gainera–.

ARRISKUAK HARTUZ, KANPORATUAK IZATERAINO

Datu ofizialik ez baldin bada ere, Matthieu Lepinek Twitteren daukan *Accident du travail : silence des ouvriers meurent* kontuaren arabera, badakigu 2019az geroztik Frantziako Estatuan gutxienez hamar banatzailek dutela bizia galdu lanean. “Banaketa bakoitza bost euro baino gutxiago ordaindu ohi da. Hori horrela, as- tean 35 orren baino askoz gehiago lan egin beharra daukate soldata bizigarri bat ate-



MOBILIZAZIOAK, ARRISKUAK HARTUZ

ehunka papergabe dabilta multinazional horientzat lanean, haien izenean edo herritartasuna daukan batena erosiz eta erabiliz. lan baldintzen alde borrokatzea eta pairaturiko esplotazioa salatzea arriskua hartzea ere bada papergabeentzat, berez ilegalitatean daudelako, hots, kanporatuak izateko arrisku pean.

ratzeko”, irakurri daiteke *Bastamag*-en *Accidents du travail non déclarés, pas ou mal indemnisés: les livreurs de repas paient le prix fort* (“Deklaratu gabeko, gaizki edota batere estalitako lan istripuak: apairu banatzaileek garesti ordaindu beharra daukate”). Oren asko sartu edota oren bakoitzean ahal bezainbat banaketa egin, horrek dakarren arrisku hartzearekin... Bistan da estatutik kanporatuak izateko arriskua ere hartzen dutela, poliziaren kontrola ukanez gero atxikitze zentrora bidaliak direlako eta hortik, gehienetan jaioterrira.

Pairaturiko esplotazioa publikoki salatze eta kolektiboki mobilizatzeko bidea zailtzen die egoera administratiboak. “Arriskutsua da plazan hitza hartzea”, dio Nada Ladrak. *Mainstream* komunikabideetan gaiak harturiko lekua dela eta, poliziaren kontrolak areagotu dira. Honetan daukate ariketa nagusienetarikoa: nola jardun banatzaileen eskubideen alde – papergabeentzat zein bertako herritar-

tasuna dutenentzat–, ilegalki dabiltzanak arriskuan jarri gabe, eta diru iturri kaskar –baina diru iturri bakar– hori itxi gabe?

Autonomo estatututik langile estatutura pasatzeko aldarria plazaratzen dabilta azken urteetan garaturiko banatzaileen kolektiboak. Tartean langile eskubide batzuen bermea dakarrelako: segurtasun soziala, langabezia eta erretirarako kotizazioak. Papergabeen onurarako ere litzatekeela diote, erregulazioa lortzeko prozedurarentzat lan egin izanaren frogak luketelako. Lanean pairaturiko irain, eraso eta mespretxu arrazisten aurka jotzeko aukera gehiago lukete ere –jasandako arrazakeria salatze eta protestak egin izan dituzte, sindikatu zein kolektiboek babesturik–.

Zuzenean kontratatzen dituenik ere bada, tartean Frichti edo Stuart plataformak. Koronabirusaren izurriteak eragindako konfinamendu garaian eskaerak gora eginik, eskulana eskas zutela, papergabeei ireki zizkieten ateak, haien

jatorriko pasaporteak onartuz. Kontua da, beharra ttipitu bezain laster, isunak sailheste egunetik biharamunera itxi zizkietela kontuak. Frichti konpainiak 200 kontu itxi zituen, Stuart-ek berriz hamarnaka, “legea aplikatzeko betebeharrari” segi. Iazko apirilean auzitegira jo zuten 66 banatzaile papergabek, CLAP plataformentzako banatzaile autonomoen kolektiboak eta CGT sindikatuak sostengaturik. Duintasuna eta erregulazioak dituzte eskatzen.

Jérôme Pimot CLAP kolektiboaren sortzaileak badaki plataforma horiek papergabeen esplotazioari esker dabiltzala aitzina: “[Frichti-ren aurkako] auzi honetan agerian gelditzen zaigu orokortuta dagoela papergabeen esplotazioa. Horiek ezean, lan baldintzak hobetzeko pisu gehiago daukaten banatzaile legalekin lan egin beharko lukete, baldintzak hobetzera behartuak izanez. Klandestinoak, ordea, mugarik gabe ito daitezke lan dorpean”. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Katherine Bidart

ZANGOZAKO LEHEN ANDEREÑO

“

HAURRAK MAITATZEA DA ANDEREÑO BATEN EGITEKORIK HANDIENA

”

18 urte zituen eta lan egin nahi zuen. Zangozako ikastolaren bidean ezarri zuen zoriak eta hantxe egin zituen lau urte, inoiz ahantzi ez dituenak, herriko ikastolaren historiak ere inoiz ahantzi ez dituenak, baina paperean zurian beltz ere jo ez dituenak.

 **MIEL A. ELUSTONDO**  **ZALDI ERO**

Nahi baino muga administratibo gehiago ditugu Euskal Herrian. Zu, berriz, Urepelen jaioa izanagatik ere, Zangozako ikastolako lehen andereñoa izan zintugun, 18 urte zenituela!

Bai, eta tartean izan zen Elena Gerezaga. Donapaulekoa zen, baina Paz de Zigan da ikastolan egiten zuen lan, Atarrabian. Urepelen sortua naiz, baina ama nuen Urtasungoa, eta bazuen ahizpa Iruñean, eta nik maite nuen Iruñerat joatea! Eta, hola, asteburu batez Iruñerat ene izeben ikusterat joan nintzelarik, liburuak saltzen ari ziren Gaztelu plazako arkupeetan larunbata goizez. Eta han zen Elena [Gerezaga], liburuaren saltzen. Begiratzen

hasi nintzen, eta nongoa nintzen galdegin zidan. Nik, Urepelekoa nintzela. Eta hola, Iruñean lan egin nahiko nukeela erran nion, eta berak: “A!, nik badut lan bat zuretzat. Arratsaldean berean eramanen zaitut Zangozarat!”. 1978. urtea zen.

Hain erraz?

Hala izan zen. Elenarekin joan nintzen Zangozarat, eta han José Jabier Abadia eta Pedro Aramendia ikusi genituen. Hastapenean erran nuen ez nekiela lana hartuko nuen, zeren eta Urepeletik Zangozarat joan eta leku arraroa atzematen nuen herri hura, idorra zen, karrika bizi-ki meharra zituen. Ni menditik heldua, dena berde-berde Urepelen... “Non kristo

sartu naiz hemen?” erran nuen. Bertze mundu bat zen zinez enetako. Proposatu zidaten Zangozako Casa Cadenas etxean egotea, eta egon nintzen han aste bat, ez gehiago, zeren eta ez nuen batere maite. Han kamioilariak bakarrik gelditzen ziren. Logela bat banuen, baina ez salarik, ez ezer. Halaz ere, erran behar dut jendeak gisakoak zirela enekin, baina, bertzalde, ni haienez ez nintzen eskualduna, frantxutea nintzen, gabatxa.

Ez da gauza polita...

Ez, ez da, erraten ahal dizut! Jendeendako kalean gabatxa nintzen. Erran dut asteburu guziz gehienetan Iruñerat joaten nintzela, baina batzuetan Zangozan gel-



Katherine Bidart Peña

UREPEL, 1960



Herrian berean egin zituen lehen ikasketak eta, artean gazte, 18 urte-tan, Zangozan zen, ikastolako lehen irakasle. Lau urte egin zituen bere biziko lehen lana izan zuenean. Haurrak maite ukan zituen, oroz gain, eta gau-eskolako irakasle ere izan zen Zangozan berean eta Aibarren. Lau urte Nafarroako ikastolei “opari” eginik —gizarte segurantzaren kottizaziorik gabe—, bestelako sarean segitu zuen irakasle. Unibertsitate ikasketak egin zituen, eta hizkuntzak ere ikasi Ingalaterran eta Kanadan (gorren zeinu hizkuntza). Aldaparriz izeneko landetxe zoragarria irekia du egun, Azkaraten, Donibane Garazi ondoan.

ditzen nintzen. Eta desfilea. “Gabatxa, zertan zara hotz! Uste genuen gabatxak bero zirela, dena libro zela zuekin!”. Horrela! Gainera, ni heldu nintzen herri tipi batetarik, kultura zuzena ukan dugu. Pentsa, ateratzen banintzen norbaitekin, herri osoak jakinen zukeen. Ez dakit konprenitzen duzun zer erran nahi dudan... Kasu egiten nuen horretarik! Jendeak gisako ziren nirekin, baina “Kaixo, gabatxa! Kaixo, frantxute!”, erraiten zutelarik, ez nuen maite.

Laketu zinen Zangozan?

Etkez aldatu nindutelarik hobeki izan zen. Uste dut José Jabier Abadia kon-turatu zela: “Ez zara gustura?”. Ni ahal-ke nintzen, herabe, ez nintzen etxetik sekula aterea. “Erdietsiko dizut etxe bat!” erran zidan José Jabierrek [Abadia]. Eta joan nintzen Jesusa Calvoren etxera, Valladolidekoa zen, emazte ona, eta beti atxiki ditut haren familiarekin eta alaba Nievesekin harremanak. Bertzalde, Zangozan nintzen asteko egunetan, baina asteburuetan Iruñer-at joaten nintzen beti edo gehienetan, izebaren etxerat. Urepelerat ere bai. Baina Iruñea izugarri maite nuen, tipi-tipitik. Ene amak ere beti Iruñean lan egin baitzuen, Casa Nagoren, zakuen saltzen udaletxearen parean, eta ni po-zik nintzen han. Azkenaz bertze, Elena-ri [Gerezaga] baietz erran nion, baina bertze pertsona batekin ere mintzatu nintzen, eta zinez balio du haren izena-ren aipatzea: Xole Erbiti. [Nafarroako Diputazioko Hezkuntza Zerbi-tzuko Euskara atalaren ar-duradun 1972az gero eta langile 34 urtez].

**Zutaz askotan
hitz egiten zion
Zangozako
ikastolako
jendeari Xole
Erbitik.**

Biziki emazte ona zen nirekin. Aita zuen Ul-tzamakoa, kontrabandista, ene aita bezala! Soledad Erbiti, merezi du aipatzea. Lan azkarra egin zuen denbora hartan, bazuen boron-date handia. Ni diputaziorat joaten nin-tzen, zabaltzen zituzten ate guziak. Beti erraiten zidan: “Zu etorri ene ikusterat zerbait baldin baduzu”. Diputazioan beti ateak zabalik ukan ditut Xole-ri esker. Diputazioan erregina bezala hartua nintzen, etxerat bezala joaten

nintzen harat: “Soledad Erbiti ikus-terat nator”. Eta ateko poliziak berak eramaten ninduen Xoleren bulegorat. Ez naiz gaur joanen!... Emazte azkarra zen, baina sentsiblea. Biziki humanoa zen. Gomitatu ninduen bazkaltzerat behin baino gehiagotan bere senarra-ekin batean Iruñean, eta ez edozein ostaratarat!

Horixe zure Xole Erbiti.

Eta gehiago. Nik Frantziako pasapor-tea nuen, ez nintzen nahi bezala han-dik honat eta hemendik harat ibiltzen ahal, eta Xolek atzeman zuen aterabide bat niretzat: hizkuntz eskolan ikasle nintzela ezarri zuen paperean, ber-tzenaz ez nintzen Zangozan egoten ahal. Xolek atzematen zizkidan beti aterabideak! “Zu, trankil, joanen gara, mintzatuko naiz lagun batekin, ikasle zarela eta hau eta hura”. Aduana pa-satzen nuen, baina Eugikoa hetsia zen, salbu ekainetik urri arte. Aita joan zen Quinto Realeko Guardia Zibilari, erran-ka: “Alaba dut Iruñean ikasle. Hemen duzu papera!”. Ez zen egia, Soledadek egina zuen! Eta karabineroek zabal-tzen zidaten Eugiko aduana! Eta ene aitak erranik, badaezpada joan nintzen Iruñeko Gobernu Zibilerat ere, Karlos III.era: “Ikasle naiz...”. Gezurra zen, bai-na Soledad Erbitik egina nuen papera! Bertzenaz ez zuten uzten Eugitik pa-satzerat, beharko nukeen itzuli guzia egin! Kontrabandista xarmantak, Xole eta biok! Kar, kar...



**Hurrek, kasu!,
tipi-tipitik maite dute
bertzetaz trufatzea,
ezagutzen dute nor den
mendrea, eta burlatzen
dira, eta hori izugarri
txarra izaten ahal da”**

Zangozara joan zinelarik, irakasle zinen?

Ez, ez nintzen irakasle, baina harat eraman ninduten. Lehenbi-ziko urtean aunitz haur banituen, hura haurtzaindegia zen! Banituen hogeita hamar haur, denak batean. Baina haurrak maite nituen, izugarri maite nituen! Gu zazpi hau-rride izan ginen etxean, ama gazterik zendu zen, haatik maite nuen ahal nuelarik Urepelerat jitea. Banuen beharra. Etxean bigarrena nintzen, anaia nagusia gaztea zen, haurrideak ere bai... Gauza aunitz.

**Zein dituzu ikastolako
oroitzapenak? Haurtzaindegia zela
erran diguzu...**



Bai. Orain musika kontserbatorioa den lekuan zen. Karmengo komentua izana zen, eta klaustroan zen gure lekua. Zaharra zen orduan, biziki zikina. 3-6 urte arteko haurrak nituen, 30 haur. Ez dakit gurasoek nahi zuten haurrek eskuara ikastea edo zer nahi zuten, baina kontent ziren haurra etxetik bidaltzen baitzuten. Bakea bazuten! Eta, bertzalde, ni “frantsesa” nintzen, haientzat ez nintzen eskualdun purra! Euskaraz mintzatzen nintzen, baina gurasoekin espainolez. Zangozarat joan baino lehen ere, konprenitzen nuen aunitz, zeren eta ama beti espainolez mintzatzen zen gurekin, eta baitezpada, samurtzen zelarik! Ohartu gabe ikasi nuen gaztelaniaz.

Irakasle egin zinen...

Lekuaren gainean! Iruñerat joaten nintzen larunbatetan, uste dut San Anton plazan zela, Casa Abarzuza. Han erosten nituen liburuak. Lehenbiziko urtean ez nintzen irakasle ona! Ikasi dut poliki-poliki. Entseatzen nintzen haurrak zaintzea, zeren eta banituen aunitz, eta behar ziren komunerat eraman, behar ziren ontsa zaindu, ez zuten eskapatu behar... Eta bakar-bakarrik nintzen, han ez zen nehor, ez zen bertzerik, Katherine baizik! Gero, Karmele Migueliz jin zen, eta elkarrekin lan egin genuen bi urtez. Berak bazituen irakasle-ikasketak, bazuen merezimendu aunitz. Nik ez nuen halakorik.

Baina izugarri maite zenituen haurrak...

Bai, eta ere usatua nintzen ardiekin men-

dian bezala haurrak ontsa zaintzen. Hori zen diferentzia, barkatu horrela erraitea. Zazpi haurride ginen etxean, ama galdua, usatua nintzen haurren artean. Karmelek ez zuen usaia, uzten zituen haurrak bustitzerat, eta gurasoak ez ziren kontent... Irriz ari naiz. Izana naiz Zangozan, denda batean, eta hango emazte batek, Rosak, erran zidan: “Badakizu nola erraiten dizugun oraino? *La andereño bonito*”. Haur tipi bat zuten, enekin zena, eta ez baitzekien erraiten “andereño bonita”, “*bonito*” erraiten zuen. “*¡No quiero con la andereño feo, quiero con la andereño bonito!*”. (Ez dut andereño itsusiarekin nahi, nahi dut politarekin!)

Zangozan, frantses eskolak ere eman zenituela erran didate.

Bai, batek galdegin zidan frantseseko eskolak ematea beren haurrari. Baietz erran nion, eta hasi nintzen frantsesaren irakasten. Baina 18 urte nituen, eta mutikoa, berriz, zaila zen. Eta mutikoaren amari joan nintzaion egun batean eta erran nion ez niola bere semeari eskola gehiago emanen, ez zuela errespeturik. Deitu zuen semea eta mokokatu zuen. Ez zen erraza enetako, gaztea nintzen, etxetik orduan aterata...

Ikastola, frantses eskolak... eta gau-eskola!

Josu Gastónek galdegin zidan, jendeek nahi zutela euskara ikasi eta ea ematen ahal nuen. Eta ni ez nintzen menturatzan ezetz erraitera, eta eman nituen klaseak. Denak ziren ni baino zaharragoak, salbu



AMA

“Urtasunen sortu zen ama, Isidora Peña Lesa. Iruñean lan egin zuen, eta ene aitarekin esposaturik, Urepelerat joan ziren bizitzera. Ez zekien euskara, baina fite ikasi zuen Urepelen! Herriko medikuak erran zion egun batez: ‘O, baina zein laster ikasi duzun euskara!’, eta ene amak: ‘Beharko! Hemengo jendearen aitzinean ene burua defenditzeko!’. Aitak erosi zuen Harizpia etxaldea, baina notarioak ahantzi zuen paper bat sinaraztea, eta bederatzi urtez tribunalean izan zen ene aita. Bi aldiz pagatu zuen etxea! Gu tipi-tipiak ginen, eta beti oroitzen naiz aita eta ama beti kezka bazutela”.

AITA

“Aita nuen Anton Bidart, urepeldarra. Mandabidea etxean sortu zen Sorogainerat doan bidean. Gero Harizpia etxaldea erosi zuen. Kontrabandista zen, eta Auritzen ezagutu zuen ama, aita harat joaten baitzen egun guziz, menditik. Auritzeko jendeek deitzen dute pasaia hori frontera ‘Antonon lepoa’, zeren eta aita pasatzen baitzen hortik. Harreman handiak ukan zituen beti Zilbetin, Aurizberrin eta Erron, eta Baztango jendeekin ere”.

L'ANTIBASQUE

“11 urte arte Urepeleko eskolan izan nintzen. Dena zen frantsesez, eta guk ez genekien! Joaten ginelarik eskolara, bagenuen *l'antibasque*, makiltxo bat, eta eskola finitzean makila hura azkena bazuenak punizione bat bazuen, kastigua: ehun aldiz idatzi behar ‘Ez naiz euskaraz mintzatuko’. Bizi izan dut hori. Errejentak ez ziren frantsesak, bat Donibane Garazikoa zen, baina ez zuten euskaraz mintzatzen”.

bat edo bertze. Oroitzen naiz egun batean, mutil batek erran zidan euskararik ez nekiela, ez zela "ontsa" erraten, "ongi" behar zela erran. Horrela hasi zen, eta ni negarrez. Bertze batek isiltzeko erran zion, emateko niri bakea, "lotsagabea", erran zion. Lagunak ziren! Baina banituen jendeak ni defenditzeko ere. Eta Aibarrerat ere joaten nintzen gau-eskola ematera.

Zangozako ikastolako lehen andereño gazte haren poz eta saminak...

Baina ni baino lehen izan zen bertze andereño bat, Karmele Azurmendi zen, uste dut. Izan zen andereño Zangozan, baina ez luzaz. Egin zituen hiru hilabete eta joan zen, zeren eta kalean bizi txarra egiten baitzioten! Insultatzen zuten! "Roja!" erraiten zioten. Bizi gaiztoa egiten zioten zinez kalean. Hortako hartu ninduten ni, ni Iparraldekoa bainintzen, erakusteko jendeei Iparraldean ere mintzatzen zela euskara, ez zela bertze munduko gauza bat.

Bizi gaiztoa hari, gozoa ere ez zuri... Lau urtez izan zinen Zangozako ikastolako andereño, lehenbiziko

andereño, baina ez zinen gelditu betiko-edo.

Gelditzen ahal nintzen, baina Karmele Miguelizek galdegin zuen gizarte-segurantzaz ukaitea, zeren bere anaiak ordaintzen zuen beretako. Ikastolakoek erran zuten ezetz: "Ez dago gizarte segurantzarik". Dirurik ez. Nire kasuan, ene aitak ordaintzen zuen gizarte-segurantzaz enetako. Eta garesti! Eta ni Karmele [Migueliz] defenditzen hasi nintzen, eta orduan ikastolako aita batek erran zidan: "Zu, frantxute!, ados ez bazara, zoaz zu ere!" Gaitzitu zidan aunitz, eta pentsatu nuen joan behar nuela.

Oroitzapen samina duzu oraindik?

Baina gozatu da. Gaizki hartu nuen, zeren hori erran zidanaren etxean egona bainintzen patrona bi urte. Hogeita hamar mila pezeta irabazten nuen, eta hamar mila behar nituen patrona ordaintzeko! "¡Fuera de aquí!" (Zoaz hemendik!) Gaitzitu ninduen aunitz. Ez zutela gizarte-segurantzaz emaiten ahal erran zidaten. Gero, bertze guraso bat jin zitzaidan, Fernando Erdozain: "Katherine, jin honat. Nik ordainduko dut zure segurantzaz. Ez da problema!", erran zidan. Presidente zen ikastolan, baina gero bertze bat eza-

rri zuten. Aunitzek kritikatu dute Fernando Erdozain, baina berak ordaindu zidan, segidan, gizarte-segurantzaz. Hura ikastolatik joan zelarrik, joan nintzen ni ere Zangozatik.

Zangozatik lekora ere irakasle egin duzu bizia; partez, bederen. Zein da andereño baten egitekorik handiena?

Haurrak maitatzea, haiek ongi ezagutzea... zeren haur guztiak abilak dira. Batzuek amultsutasuna behar dute, bertze batzuekin behar da gogor izan... Haurrak behar dira beti goitik tiratu, den mendren indarra egiten badute... Sekula ez dut notarrik ezarri haurren lanetan, beti ezartzen nituen bihotzak edo irriak. Haur batek eginga bazuen den mendren urratsa, hari ezartzen nizekion hiru bihotz. Haurrek, kasu!, tipi-tipitik maite dute bertzetaz trufatzea, tipi-tipitik ezagutzen dute nor den mendrea, eta burlatzen dira, eta hori izugarri txarra izaten ahal da, haur bat desegiten ahal da. Eta haurrak biltzen nituen itzulian eta mintzatzen nintzen, eta mendreenak goititzen nituen. Hori Zangozan ikasi nuen, han konturatu nintzen gauza horretaz... Biziki maite nuen Zangoza, eta biziki oroitzapen goxoak ukan ditut! ●

Ekainekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Inflazioa

Azken hogeita hamar urteetan eza-gutu ez den prezioen igoera orokor garaiena ezagutu dugu azken hilabetetan Euskal Herrian eta, oro har, Mendebaldeko herrialde guztietan. Aspaldiko partez, inflazio tasa apalak atzean geratu dira eta prezioek gorantzako joera indartsua hartu dute. Esaterako, iazko apiriletik aurtengora Kontsumorako Prezio Indizea %8,7 igo da Nafarroan eta %7,8 Euskadiko Autonomia Erkidegoan, marka guztiak hautsita.

Inflazioaren diagnostikoa egitean ohiko ikuspegi liberalak azpimarra ipintzen du pandemiari aurre egiteko Mendebaldeko gobernu gehienek eta baita Europako Banku Zentralak ere erabili duten diru politika hedatzailean. Ikuspegi horren arabera, esku artean dagoen diru kopurua hedatzeak ondasun eta zerbitzuen prezioak igotzea dakar. Eta horregatik, prezioen igoera horri aurre egiteko diru kopurua mugatu eta interes tasak igotzea beharrezkoa litzateke. Beraz, azkenaldiko interes tasa apalen aroa amaitzeaz dagoela aurreikus daiteke, Ameriketako Estatu Batuetan joera aldaketa eman baita eta Europako Bata-sunean epe hurbilean gauzatzea aurreikusita dago.

Nolanahi ere, 2021eko eta 2022ko prezio igoeren sorburua eskaintza da. Hala nola, munduko petrolioaren prezioak lehertu egin ziren iazko udaberrian. Bestalde, energiaren arloko beste lehengaien igoera trinkoak ematen hasi

Interes tipoak
emendatzea edo
soldaten igoerak
mugatzea ez dira neurri
eraginkorrak egungo
prezioen hazkundeari
muga ipintzeko

ziren iazko udaz geroztik. Eta pandemiaren geldialdiaren ondorengo eztanda ekonomikoarekin, erdieroaleen eta industriagintzarako ezinbestekoak diren bestelako bitarteko ondasunen balio kateek gainezka egin zuten. Ondorioz, input horien prezioak ere nabarmen igo dira. Urte honetan, Ukrainaren inbasioak eta Errusiaren aurka hartutako neurri ekonomikoek are gehiago astindu dituzte elikagaien eta energiaren prezioak. Faktore zehatz horiei gehitu behar zaie enpresa handiek arrazoirik gabe beren etekin tarte handitu izana. Horiek dira egungo inflazioaren arrazoi nagusiak.

Beraz, ez da diru politika hedatzailea ezta soldaten jokabidea behatu behar prezioen igoera orokorrak ulertzeko. Horregatik, interes tipoak emendatzea edo soldaten igoerak mugatzea, sozial-



MIKEL ZUBANO
EKONOMIALARIA

ki bidegabeak izateaz harago, ez dira neurri eraginkorrak egungo prezioen hazkundeari muga ipintzeko. Banku Zentralak interes tasa ofizialak igotzen baditu inbertsioa eta maileguzko kredituak garestituko ditu eta, beraz, salmentak, jarduera ekonomikoa eta enplegua moteldu. Horrek atzeraldi berria eragingo luke, eta prezioen gorantzko joera ez litzateke etengo.

Inflazioari aurre egiteko beste estrategia bat soldatak mugatzea da. Aurre-ratu dudanez, neurri hori ere atzerakoa ez ezik hutsala izango litzateke prezioen hazkundera menderatzeko. Batetik, soldatak ez daude egungo prezioen hazkunde orokorraren atzean. Eurostaten arabera Espainiako Estatuan azken 21 urteetan soldatek errenta *nazionalean* duten pisuak ehuneko 3.5 puntu egin ditu atzera, etekinek eta kapital errentek irabazi dutena, alegia. Eta 2021ean, prezioek igotzeko joera hartu zutenean, okerragoa izan zen, soldatapekoen erosahalmena %2,2 jaitsi baitzen. Bestalde, prezio-soldata arteko aldearen gorantzko joera ez dator bat egungo egoerarekin. Garaiotan enpresa handien eta oligopolioen gehiegizko etekinak eta lan ez besteko kostuak –energiarena kasu– dira prezioak akuilatzen dabilzanak.

Neurri bidegabe eta antzu horien ordez inflazioaren aurkako borrorak eskaintzan eta egiturazko oinarrietan eragin beharko luke, justizia sozial eta ekologikoaren esparrua zabalduta. ●

Erradikaltasun eta ñabardura beharrez



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



Azken hilabete hauetan, hedabide frantsesetan maiz erabili da “erradikaltasun” hitza: frantses lehendakari-hauteskundeetako kanpainan, eskuin-muturreko kandidatuak errazki baliatu dute “estremismo” terminoaren partez; ezkertiarrek, berriz, “erradikaltasuna” bere egin dute ere bai, adierazteko garaia dela aldaketa iraultzaileak egiteko.

Ezkertiar gehienek artean bereziki, “erradikaltasuna” baikorki konnotatua da egun, ez da gehiago minoritate bortitz baten ekintza gaitzesgarriekin lotzen. Badirudi ez dela gehiago ongi ikusia moderatua, erreformista, mailaz mailakoaren aldekoa izatea. Nola ez: denok ohartuak gara zailtasun handi handitan gabiltzala: ingurumena suntsituz gizakiaren biziraupen kolektiboa guhaurrek ezarri dugu kolokan, mundu osoan gaina hartua duen sistema neoliberalak norbanakoak lehertzen ditu, harremanak urratzen, eta galdu ditugu esperantza ematen zuten ideologia zaharrak. Biziki presazkoak dira beraz bide erradikalak, begi bistakoa delako ez dugula gehiago denborarik hautsimautsiendako. Alor guztiak erradikalizatu dira azken hamarkada hauetan: feminismoa, post-kolonialismoa, ekologia...

beharrezkoa iruditzen baitzaigu erroten uzaltzea zuzengabetasun soziala, inperialismoa, kapitalismo handia, kutsadura masiboa eta ekosistemen zapalketa. Hori baita gaurko “erradikaltasun” baikorra, Marxen erranaren ildotik: gauzak erroten hartzea eta eraldatzea.

Bizkitartean, erradikalizatze horiek lanjerosak izan daitezke gizabanakoen eta giza taldeen arteko harremanak oztopatzen badituzte. Ikusi dugu frantses lehendakari-hauteskundeetako kanpainan hautagaien arteko eztabaidak ezinezkoak zirela: kandidatuak egoskor jartzen ziren, hitz bortitzak edo umiliagarriak erabiltzen, erakusteko ezin zuketela bata bestearekin eleketan aritu, jendetasunezko kode soilak enplegatuz. Jendartean ere bai, eztabaidatzeko gogoia eta gaitasuna murriztu dira: gai batzuk tabu daude (COVID-19ak eragin osagarri krisi kudeaketa, adibidez); bakoitzak nahiago du bere ideiekin egon, bere ideiak partekatzen dituen taldearekin bakarrik harremanetan gelditu, eta gainerateko jendearekin ez gurutzatu. Orokorrean, postura erradikalek funtsa gorrotoan daukate: patriarkaltasunaren eta sexismoaren herran, neoliberalismoaren aiherkundean, kolonialismoaren arbuioan. Zuzentasunak

bultzatuak izan arren, arriskua da ideologia erradikal garaikideek lerraraz gaitzabela autoritarismo berritara, ez balin badiote baliorik ematen begirunezko eztabaidari.

Hain zuzen ere, “erradikaltasunaz” bestalde kontzeptu bat sartua da arrunt hedabide frantsesetan, bai eta goi-mailako literatura-ikerketan unibertsitarioan ere: “ñabarduren” beharra. Definizio lausoko nozioa da. Horren sostengatzaile batzuek Habermas filosofoaren kontsentsuaren kontzeptuarekin lotzen dute, zentzu neoliberalen; beste batzuek “care” kontzeptu itsu eta patetikoarekin (ikus 2022ko maiatzaren *Le Monde Diplomatique* eta Parisen 2021eko urte hondarrean iragan den seminario unibertsitarioa: “Caring lit”). Alta, “ñabarduren” aldarrikapen horietatik ez daiteke aterabiderik heldu: bizi ditugun dramak ez dituzte azaleko kontsentsu minimo eta epelek trabatuko.

Hausnartzen nagoela hori guziaz, pentsatzen dut ideologia erradikalen behar gorria dugula, zuzengabekeriak salatzeke, baina lortu behar dugula gehiago, zintzokiago eta hobeki eztabaidatzen, nork gurea ukatu gabe elkarrekin salbatzeko geure burua, salbamen kolektiboa delako desiragarria. ●



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Erlijioa eskola publikoan

Hezkuntza-legea aldatuta, Espainia-ko Gobernuak erlijio-ikasgaiaren asteroko pisua ordubetera jais-teko aukera eman zien iaz autonomia-erkidegoei, bai eskola pribaturako, bai eskola publikorako. Zergatik eskaintzen den erlijioa eskola publikoan? Bada, berrogeita hiru urteren ondoren, Espainia-ko Kongresuan oraindino ere inork ez duelako konkordatua indargabetzeko prozesua abian jarri. Ez PSOEk (jakina), ezta Podemosek, ERCK, Bilduk, Más País... inork ez.

Vatikanoarekin sinaturiko konkordatua indargabetzea, berriz, premia etikoa da. Begira, bestela, haren lehen artikulua zer dioen: "Betiere, ikastetxe publikoetan ematen den hezkuntzak kristau-etikaren balioak errespetatuko ditu". Astakeria handiagorik! Eskola publikoko hezkuntzak kristau-etika errespetatu beharra? Zergatik?

Gogoratu konkordatua nazioarteko ituna dela eta, beraz, bete beharreko legea. Gogoratu, EAEn udazkenean eztabaidatuko den hezkuntza-legeak ere, erlijioa eskaini beharko duela, nahitaez. Alegia, EAEko eskola publikoa ez da laikoa izango... harik eta Espainiako Kongresuak konkordatua indargabetzen duen arte. Asko jota, EAEko legeak ordubetera jaitsiko du erlijio-ikasgaiaren pisua, Aragoiko Gobernuak aspalditik

egiten duen legez. Esan barik doa, erlijioa astean ordubetera jaisteak ez duela EAEko eskola publikoa laiko bihurtuko.

Eskola publikoa benetan laikoa izatea gura badute, ezkerreko alderdiek berehala ekin beharko diote. Ez Kongresuan legez besteko proposamenak sartuta, baizik eta konkordatua indargabetzeko prozesua abiarazita. Horretarako, lehenbizi, Kongresuaren gehiengo absolutuz onartu behar da indargabetzea. Ondoren, urtebetera, berretsi egin behar da erabakia, gehiengo absolutuz berriz ere. Horixe da konkordatua indargabetu eta eskola publiko laikoa lortzeko bide bakarra.

Hori gertatu arte, herrialde bakoitzeko gotzainek jarraituko dute eskola publikoko irakasleak nahierara aukeratzeko, inolako lehiaketa prozesurik gabe. Eta jarraituko dute eskola publikoko irakasleak nahierara kaleratzen, inolako kalte-ordainik kitatu gabe: dirua, autonomia-erkidegoetako hezkuntza departamentuek ipiniko dute.

Hori gertatu arte, erlijio katolikoa eskola publikotik kanpora gura ez dutenek aitzakia ederra izango dute gotzainek nahieran ipinitako irakasleak beren lanpostuetan kosta ahala kosta mantentzeko, nahikoa ikastordu ez badute ere. Navarra Sumak eta Geroa Baik egin berri duten legez. ●

Komunitatea



**EVA PEREZ-PONS
ANDRADE**

Maiatza eta ekaina dira argi eta garbi instituzio, enpresa, alderdi politiko, komunikabide, GKE eta abar luze batek LGTB borroka instrumentalizatzeko erabiltzen dituzten hilabete nagusiak. Baita ere, ortzadarraren bandera edonon ikustean lotsa pixka bat sentitu eta aldarriak bota aurretik gure buruak kanpora begira justifikatzen denbora gehien inbertitzen dudun urteko sasoia.

Egun horietan, LGTB komunitateaz edo kolektiboaz mintzo da gune horietako gehienetan LGTB pertsonen buruz modu orokortuan hitz egiteko, LGTB iza-teak komunitate baten parte era natural

batean jarriko bagintu bezala. Komunitateak ezerezetik sortuko balira bezala. Denok baliabide berberak izango bagenitu bezala. Ezta gutxiago ere. Gutako asko ez gara beti komunitate baten parte izan, bilatu edo sortu behar izan ditugu, horrek gure jaioterriak atzean uztea eta gure bizitzetan apurketak eta frustrazioak ekarri baditu ere. Komunitateak landu eta zaindu egiten ditugu, egunero. Eta sistema kapitalista, hetero eta kolonial honetan autodefentsa praktikatzeko lubaki bakarrak ditugu. Zelakoak izango lirateke gure bizitzak eta prozesuak babesleku horiek gabe, lagun. ●

Nafarroako torturatuen sarea



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Interneten begiratu azkar bat eginda, aurkitu dudana lehen gauza izan da 1981eko *El País*-eko artikulua bat, zera esaten duena, izenburuan: "Nafarroako preso eta atxilotuen familiarrek Poliziaren abusuak salatu dituzte". "Azken boladan" atxilotutako hamazazpi lagun familiarrek salatu dute Nafarroako komisariatetan eta Guardia Zibilaren kaseretan torturatzen dela eta tratatu txarrak ematen direla. "Lekukotasun eta froga asko dago" –diote familiar horiek–; baina zoritxarrez ez dute ezertarako balio tortura desagerrarazteko borondatea ez dagoen bitartean.

Artikuluak, 41 urte edukitzeagatik, ez du gaurkotasun askorik galdu; bai auzi zuzenki politikoetan torturaren erabilera sistematikoari buruzkoan, ausaz –eta hala ere mintzatu beharko litzateke etorkinek, demagun, gaur egun atxiloteta-zentroetan jasaten duten tratuei buruz–; ez ordea tortura desagerrarazteko borondateari dagokionean: tortura sistematikoa izan da urte luzez itun politiko-mediatiko-judizial-mediko bat izan delako torturazaileriei erabateko laguntza eta kobertura emateko, eta beren burua ez bakarrik

Tortura sistematikoa
izan da urte luzez itun
politiko-mediatiko-
judizial-mediko bat izan
delako torturazaileriei
erabateko laguntza eta
kobertura emateko

demokratizat, baizik eta progresistatza eta are ezkertiarizat jotzen dutenetako batzuk ez zirelako izan itun horren ezjakin, ez aurkako. Sinpleki, beste aldera begiratu zuten, orduan horixe zelako zuzentasun politikoak eta ustezko demokraten taldekoa, zintzoen saldokoa, izateko eskatzen zen baldintza *sine qua non*. Inork ez du autokritika txikienik ere egin.

Askok dago torturaz hitz egiteko: herritarrak ikartzeko eduki zuen efek-

tuaz; erruduntasunak eraikitzeke izan zuen balioaz; eraginkortasun polizialaren irudia emateko izan zuen erabileraz; informazioa lortzeko aitzakian egindako izugarrikeriez; epaileek, auzi-medikuek, ofiziozko abokatuek, kazetariak, intelektualek... jokatu duten paperaz; tortura-instituzioaren historiaz, arlo juridikoan izandako tratuak eta edukitako ondorioez; idazleek eta filosofoek –Baudelaire, Beccaria, Sciascia, Sarrionandia– gaiari nola egin dioten aurre; matxismoarekin daukan erlazioaz...

Fenomenoaren konplexutasunari hurbiltzen hasteko, *Viento Sur* aldizkarian Begoña Zabalak elkarriketa luze, sakon eta ederra egin dio Mikel Sotori haren esperientziari buruz. Herritar moduan, eskertzen dizkiot Mikeli eta sareko kideei beren kementa eta esku-zabaltasuna (eta eskertzen diot Mikeli nire ipuin bati buruz egiten duen aipua, nahiz eta argitu behar dudana ez dela ezer autobiografikotik). Nafarroako Torturatuen Sareak martxa bat antolatu du hurrengo ekainaren 25ean, Iruñean. Ordura arte. ●

M
ama* eme* ume*

Erika Lagoma Pombar · Estitxu Fernandez Maritxalar

elkar
www.elkarargitaletxea.eus

Tene Mujika saria



Babesa duenak galdera berriak sor ditzake. Egin dezake desberdin.

Babesa duenak zaindu dezake elkar. Eragin dezake txikitik.

Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45

HEDABIDEEN JABETZA KAPITALISMOTIK HARAGO

Maiatzaren 12tik 14ra Vianan egindako *Jabetza, hedabideak, publikoa* konferentzian parte hartu du ARGIAk, *Hedabideen jabetza kapitalismotik harago* mahai-inguruan. Komunikazio Zientzia Kritikoen Sareak antolatu du, komunikazio zientziek egindako azterketetan jabetzaren auziak jasan duen desagerpenari buelta emateko. ARGIAren proiektua aurkezteko eta ikuspegi eraldatzailetik jarduten duten beste medio batzuekin harremanak egiteko aukera izan da konferentzia.

 PERU IPARRAGIRRE  MARLEN VAN DEN ECKER / KRIKOWI

Komunikazioaren esparruko as-
kotariko ikasle, ikertzaile eta
irakasleek osatzen dute Komu-
nikazio Zientzia Kritikoen Sa-
rea (*Kritische Kommunikations-
wissenschaft Netzwerk* alemanez, edo
KriKoWi, laburtuta). 2017an hasi zuten
haien jarduna. Geroztik, hainbat lantal-
de sortu, ikerketen inguruko ekitaldiak
antolatu eta argitalpenak sustatu ditzte.

Hedabideen eta komunikazioaren in-
guruko ikerketa zientifiko kritikoa sus-
tatzen du sareak. Batez ere akademiaren
esparruan, baina hortik harago eragiteko
borondatez, aktibismo politikoarekin eta
kazetaritza praktikekin elkarlanean ari-

tuz. Zer da, baina, komunikazio zientzia
kritikoa? Sareko kideek diotenez, teoria
sozialari eta kapitalismoaren analisiari
lotutako ikerketa tresnekin egiten dute
lan, komunikazio zientzien esparruan
jabetza harremanak, aginte motak eta
botere desberdintasunak aztertze-
ko eta, finean, haien garapen historikoa kontuan
hartuz gizarte harremanak eraldatzeko.

Ikerketak aurkeztu, garatu eta heda-
tzeko seminarioak, udako eta neguko es-
kolak eta konferentziak antolatzen dituz-
te. Urteroko konferentzia nagusia zena bi
urtean behinekoa bilakatu zen 2019tik
2021erako tartean, eta COVID-19aren
enegarren olatua zela-eta 2022ra atzera-

tu behar izan zuten. *Jabetza, hedabideak,
publikoa* izena hartu zuen KriKoWi Vianan
egindako konferentziak, sarearen
laugarrenak. Jabetzaren auzia berriz ere
mahai-gainean jarri eta aztertze-
ko aukera izan zen.

Dozenaka hitzaldi eta tailer antolatu
zituzten hiru eguneko egitarauan. Heda-
bideen jabetza, finantzaketa, estatuare-
kiko eta enpresa handiekiko mendeko-
tasun harremanak, jabetza hedabideetan
nola errepresentatzen den, sare soziale-
tan eta iritzi publikoan dauden diskur-
tsoak eta bestelako mundu bat eraikitze-
ko hedabideen egitekoa zein den aztertu
zuten, besteak beste.





Ezkerretik eskuinera:
Boyan Stanislavski,
Lander Arbelaiz,
Sevda Can Arslan,
Ulli Weish eta
Ines Schwerdtner.

Austriako hiriburuan lur hartu genuen ARGIAko hiru kazetarik ostegun arratsaldean, hotelean gauzak utzi, bidaiako izerdiak dutxan garbitu eta Vienako Unibertsitatearen Ekonomia eta Enpresari-tza fakultaterantz abiatu ginen segidan.

Iritsi, harreraren zeuden gazteei gure izenak hizkiz hizki eman eta horiek idatzita zituzten eranskailuak paparrean jarri genituen. Kokatzerako, jende bat jakin-minez begira gurela konturatu ginen, ezagun zen bazekitela konferentziaren programak iragartzen zituen euskaldunak ginela. Abegikor hartu gintuzten, eta parte hartuko genuen mahai-ingurua salbu erabat alemanez izango zen konfe-

rentzia jarraitu ahal izateko ezinbesteko laguntza izan ziren xuxurlariak ezagutu genituen

HEDABIDEEN JABETZA

Ostiral goizean hiria apur bat bisitatzeko aukera izan genuen, erdigune behinola inperial erabat masifikatua eta aldiri la-saiagoan dagoen Karl Marx Hofe bisitatu genituen, eta metro geltoki baten pareko kebab saltzaile kurdu bati erositako durumak bazkaldu eguerdiko 12:00tan. Oso europarra dena.

Arratsaldean izan zen Vienaraino eramantzen gintuen *Kazetaritza komun gisa. Hedabideen jabetza kapitalismotik ha-*

rago izenburuko mahai-ingurura. Europako ezkerreko hainbat alderdiren erreferentzia den Transform! Europe sareak sustatutako mahai-inguruan parte hartzeko gonbidapena jaso zuen ARGIAk iaz, European perspektiba eraldatzaile-tik lan egiten duten beste lau hedabide-rekin batera. Alemaniako *Jacobin* aldizkari-ko Ines Schwerdtner erredakzio burua, Ulli Weish Vienako Orange irrati libreko zuzendaria, Europa ekialdeko Baricada hedabide digitaleko Boyan Stanislavski, azkenean bertaratzerik izan ez zuen Greziako *The Press Project*eko Konstantinos Poulis eta ARGIAko Lander Arbelaiz elkartu zituen mahai-in-

guruak. Sevda Can Arslan ikertzaile eta KriKoWi-ko kideak moderatu zuen.

Bakoitzaren hedabidearen forma juridikoaz, jabetzaz eta antolaketaz galdetu ziren lehenik Can Arslanek parte-hartzaileei. Baricadako Stanislavskik hartu zuen hitza. Haien enpresa hiru bazkide dituen ohiko erantzukizun mugatuko sozietatea dela argitu zuen (Espainiako estatuan S.L. eta Frantziakoan SARL gisa izendatuak), batez ere arrazoi praktikoak direla medio. Aipatu zuenez, Ekialdeko European kooperatibak edo fundazioak sortzeko gainditu beharreko traba burokratikoak handiegia dira eta, bestalde, ohiko enpresak baino susmagarriagotzat jotzen dira. *Jacobin* aldizkariako Schwerdtnerrek azaldu zuenez, haienak ere forma juridiko bera du, baina ekonomia sozialeko enpresa ere bada haiena. Hala eta guztiz ere, ekonomia sozialaren eredua baino haragoko asmoak dituztela azpimarratu zuen, haiena aldizkari sozialista dela argituz. Gaineratu zuenez, Alemaniako alderdi eta bestelako taldeekiko politikoki eta ekonomikoki independentea da *Jacobin*.

Orange irratiko Weishek irratiazen izaera askotarikoa nabarmendu zuen. Izan ere, irrati pirata gisa sortu zen 1998an eta 25 hizkuntzatan mintzatzzen den eta 220 irratsaio dituen irrati

komunitarioa da egun, hasierako espirituari eusten diona. Irrati libre eta irekia denez parte hartzaileak eta saioak etengabe aldatzen direla azaldu zuen, eta parte hartzaileen eta langileen profilari eta irratsaioen edukiari jarraipena egiten ahalegintzen dira. Egun hamabi langile dira, baina orotara 500 irratigilek hartzen dute parte. Irratigintza ikastaroak antolatzen dituzte, jendeak haien irratsaioak egin ditzan, baina bestelako auziak ere lantzen dituzte: hizkuntza aniztasuna, hizkera anti-arrazista eta ez-sexista eta beste.

ARGIAren txanda heltzean, hizkuntza txiki bateko proiektu txikia izanik, bertaratutakoak harrituta geratu ziren 103 urteko historia duela entzutean. *Zeruko Argiatik Argi*arako pausoaz hitz egin zuen Arbelaitzek, eta proiektuaren ibilbidea laburtu. Gaur egun erredakzioa, arlo komertziala eta administrazioa sailetan antolatzen den 25 langileko kooperatiba dela azaldu zuen, eta soldaten berdintzea eta arduren banaketa ekarri duen azken hamarkadetan egindako horizontaltaltze prozesuaren berri ere eman zuen.

DIRURIK GABE HEDABIDERIK EZ

Aurkezpenen ostean, finantzaketa ereduaz galdetu zuen Sevda Can Arslan

moderatzaileak. Izan ere, eta *Jacobineko Schwerdtnerrek* azpimarratu zuenez, dirua lortzea etengabeko eta ezinbesteko borroka da hedabide batentzat, dirurik gabe nekez egin baitezake aurrera. Hiru eredu azaleratu ziren, harpidetzen bidezkoa, aktibitate komertziala oinarri duena eta finantzaketa publikoaren mendekoa.

Alemaniko *Jacobin* aldizkariaren lehen zenbakia finantzatu eta martxa hartu ahal izateko *Sozialismoaren ABCa* izeneko liburua argitaratu zuten. Enpresa, argitaletxea, sortzerakoan notarioak barre egin zuela kontatu zuen Schwerdtnerrek, gaur egun ezkerreko argitaletxe bat sortzea ez baita, behar bada, apustu oso ziurra. Hala ere, proiektuak lehen pausoak eman zituen liburuaren salmentarekin, eta webgunean argitaratutako edukiarekin jendearen interesa piztuz lortu zituzten harpideak. Schwerdtnerrek azpimarratu zuenez, gaur egun Internet gabe ezinezkoa litzateke horrelako proiektuak hainbeste jenderengana iristea, baina, aldi berean, ezinezkoa da horrelako proiektu bat mantentzea produktu fisiko batek dakartzan harpidetza eta diru-sarrera finkorik gabe.

Moderatzaileak papereko hedabideen harpidetzen galerari nola aurre egin galdetu zuen, eta Arbelaitzek erantzun



zuen ARGIA ez dela harpideak galtzen ari eta azken lau urteetan %25 egin dutela gora. 2016an harpidetza ereduaren egindako aldaketa azaldu zuen, eta produktua ordaintzetik proiektuari babesa ematerako saltoaz mintzatu zen. Harpideek dakiten bezala, proiektuari egin beharreko ekarpen ekonomikoa ez dago finkaturik, bakoitzak nahi eta ahal duena ordaintzen du. Aldaketa horrek funtzionatu badu hedabidearen oinarrian dagoen komunitateari esker izan da, eta bi urteko hausnarketaren ostean findutako ereduaren europar bakana dela ikusi ahal izan genuen. Mahai-inguruan Arbelaitzek azpimarratu zuenez, aldaketa eman zenetik komunitateko kide ugari batzuek bestekoa baino diru gehiago jartzen du eta horri esker doan bidaltzen zaie kolektibo zaurgarriari, preso politikoei eta COVID-19aren pandemia lehertzean ordaindu ezin izan zutenek, adibidez.

Baricadako Stanislavskik azaldu zuenez, Bulgarian ez dago harpidetzaren kulturarik eta haien hedabidearen jarduna finantzatzeko bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzte, batez ere komunikazioarekin lotutakoak. Mendebaldeko Europatik egiten dizkieten enkarguak dira asko, kokatuta dauden lekuetan diseinu eta inprenta lanak, esaterako, egin eta horiek gero esportatzea merkeagoa baita askotan. Hala ere, azpimarratu zuen kontratatzen dituzten langile guztiak baldintza onetan egotea eta soldata osoa ordaintzea oinarritzeko dela beraientzat. Horrela laburbildu zuen bere ikuspegia: "Ezkerreko jendeak ere badaki negozioak kudeatzen, eta eskuinekoek baino hobeto, tranparik egin gabe".

Bestelakoa da Orange irratiaaren egoera. Haien ezinbestekoa da finantzaketa publikoa. Austrian alor horretan dagoen ustelkeria eta paternalismoa salatu zuen, besteak beste. Gutxi gorabehera hiru milioi entzule dituztela nabarmendu zuen eta uhinetan, Interneten zuzenetan eta artxiboan entzun daitezkeela haien saioak. Salatu zuen eskuineko alderdiek noiz edo noiz arazo gisa saldu nahi izan dutela irratia diru publikoz finantzatzea, eta azaldu zuen hedabide handiei publizitate bidez eta bestelako laguntzen bidez banatzen dieten kopurua askoz ere handiagoa dela.

KAPITALISMOTIK HARAGO

Ikuspegi eraldatzailea duten hedabideek duten egitekoan garrantzizkoak diren ikuspegiak ere aipatu zituzten. Mugaz gaindiko elkarlanaz eta mezuak heda-

tzeaz ere mintzatu ziren, besteak beste. Stanislavskik azpimarratu zuenez, beraientzat oso garrantzitsua da mezua zabaltzea publikoarekiko gailentasunez ez hitz egitea. Elkarlanari dagokionez, bere ustez, eta etsitasun puntuarekin esan zuen, nabarmena da gaur egun munduan "gauza bera egiten" ari dela ezkerreko hedabide txiki asko, baina horiek batzea oso zaila da, oso desberdinak baitira errealitateak. Hala ere, komunitatea, batasun hori, ezinbestekoa dela gaineratu zuen. Egungo panoraman, zorritzarekin, "bere ikuskizuna montatu nahi duen general asko baino soldadu gutxi" dago bere aburuz.

Ezkerreko hedabide txikiak elkar lagundu behar dute

Arbelaitzek ere beste hedabideekin kooperatzeko aukera eta beharra jarri zuen mahai-gainean, eta Creative Commons lizentziek, adibidez, horretarako bide ematen dutela. Azpimarratu zuenez, hedabide nagusiek, eskuinekoek, segundo bakarrean mundu osoan albiste bera zabaltzeko berri-agentziak dituzte, eta horren aurrean ezkerreko hedabide txikiak elkar elikatu beharko lukete, batzuk iristen ez diren tokietara besteak iristen baitira. Hala ere, mahai-inguruko arloan CC lizentzia erabiltzen zuen hedabide bakarra zen ARGIA.

Jacobi aldizkaria AEBetan sortu zen hasiera batean eta geroztik beste herrialde batzuetan ere errotu da, tartean Alemanian. Frankizia moduko bat direla aipatu zuen Schwerdtnerrek. Horrek aukera ematen die beste hizkuntzetako Jacobiaren edizioetako edukia itzuli eta haien argitaratzeko. Egun, beraien testuen %25 beste hizkuntza batzuetatik itzulia da. Azpimarratu zuen itzultzea ez dela testua hizkuntzaz aldatzea bakarrik, norberaren eremu kulturalera beste testuinguru kultural batzuk ekartzea baizik. Askotan apustua egiten dute atzerriko zenbait gai alemanera eramateko, irakurrienak izango ez diren arren munduko beste leku batzuetako egoeraz informazio baliotsua ematen dutelako.

ARGIA UTOPIA?

Ez gaudenez kapitalismotik harago zaila da hedabideak kapitalismotik harago irudikatzea, hori argi geratu zen. Hedabideetatik asko jota kapitalismoa gainditzeko planteamenduak proposatu, nagusia den kontakizunari kontrapuntua egingo dion kazetaritza egin eta erresistentzien berri eman eta sustatu daitezke. Publikotik egin zen galderetako bat izan zen ea nola irudikatzen duten hedabideetako kideek haien hedabidea kapitalismoaz haragoko testuinguruan.

Horra iritsi gabe, "tarteko eremu batean" kokatu zuten haien burua mahai-inguruko parte hartzaileek. Anekdotak gisa, Arbelaitzek kontatu zuen harpidetza ereduaren aldatzeko prozesuan aztertu zela dirua erdigunetik kentzeko aukera ere, eta, adibidez, denbora bankuen kontzeptua hartuta, aldizkaria bidaltzearen trukean informatikari lanak edo laranjak onartzea proposatzea ere pentsatu zela. Stanislavskik umorez esan zuen ideia ona zela, baina hobe litzatekeela laranjak dituztenekin baino ardo ekoizleekin egitea trukea.

Schwerdtnerrek aipatu zuen lanaren espezializazioa gainditu nahiko lukeela, lantaldeko jendeak egiten dituen lanez gain interesatzen zaizkion bestelakoak egiteko aukera ere izan dezan. Gutxitan izaten da hedabideen bestelako jabetza ereduak eta jardunaz hitz egiteko aukera, eta baita egun zabaltuta dagoenetik aldentzen diren moduak pentsatzeko eta partekatzeak aukera ere, eta entzuleek, ikertzaileak eta aktibistak gehienak, interes ez zuten zituzten esandakoak.

Konferentzia goitik behera akademikoaren erdian hedabideen esperientzia zehatzak partekatzeak eta antzeko koordinatuetan mugitzen diren proiektuak ezagutzeko aukera izan zen asteburua. Konferentziaren egitarauaren ertzetan eta afalosteetan ere izan zen horretarako aukera, noski.

ARGIaren proiektua nazioarteko foro batean azaldu dugun lehen aldia izan da, eta jakin-mina ez ezik interes handia ere nabaritu dugu. Bitxikeria gisa, baten batek ARGIA egiten ari garen lana hedabideen esparruan "utopia" dela aipatu zuen, gu ia lotsaraziz. Urruntzeak edo gauzak beste norbaiten begietatik ikusteak ematen duen perspektibarekin biziberrituta eta ARGIAren proiektuaren eta oinarri ezinbestekoa den komunitatearen indarrak birjabetuta itzuli gara Euskal Herrira. ●

DANIEL GRABNER, IKERLARIA

“Egunkari nagusi gehienak erabat menpeko dira publizitate instituzionalarekiko, desagertu egingo lirateke gabe”

Hitzarmena iragarkien truke - hedabideen eta Austriako Estatuaren arteko menpekotasunak. Izenburu hori dauka Daniel Grabner ikerlariak (Austria, 1990) KriKoWi konferentzian egindako aurkezpenak. Bertan xehe azaldu du publizitate instituzionala nola banatzen den herrialde horretan. Beste lekuetan gaia nola kudeatzen duten ikustea Euskal Herrirako interesgarri delakoan elkarriketatu dugu.

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA  PERU IPARRAGIRRE

Austriako erakundeek diru asko xahutzen al dute publizitate instituzionalean?

Bai. Alemania iparraldearekin konparatzen badugu, *per capita* 10 aldiz gehiago.

Zenbat diruz ari gara?

Azken hamar urteetan, urtean 175 eta 200 milioi euroren artean xahutu dute. Hala ere, 2020 urtea nabarmendu zen, pandemiarekin arazo handi bat izan baitzuten hedabide gehienek, batez ere paperekoek: iragarleen gainbehera. Ziklikoki krisi ekonomiko bat lehertzen den bakoitzean, gobernuak beti ematen du pauso bat aurrera, publizitate instituzional gehiago jarritz, hedabideei bizirau-teko diru-laguntza bonusa ematen die.

Zein erakunde ikertu dituzu?

Austriako Gobernua ala udaletaraino heldu zara?

Austrian datu-base publiko bat daukagu, eta erakunde publiko guztiek bertan jarri behar dute hiru hilero non ari diren xahutzen publizitate instituzionala eta zenbat. 2013an hasi zen hori eta erakundeak legez behartuta daude argi eta garbi azaltzera non zer jartzen duten. Datu-base horretan Austriako Gobernu-ko ministerioetatik hasi, Viena eta beste udaletatik pasa eta enpresa publikoetara heldu bitarteko informazio guztia dago, ehunka eragile publikoren datuak.



Nork jasotzen du diru gehien?

Urtero errepikatzen da banaketa orohar. Egunkari handi eta tabloideek jasotzen dute gehien, termino abso-lutuetan. *Kronen Zeitung* eta dohainik banatzen diren egunkariak milioiak ja-sotzen dituzte. Noski, tabloide eta egun-kari nagusiek irakurle gehiago dute, eta beraz, irakurleka banatuko balitz dirua, orekatua dirudi lehen begi-kolpean.

Nagusi diren hedabideek jasotzen dute gehien, beraz.

Bai. Halere, hori zalantzan jar liteke, izan ere, publizitate instituzionala he-dabideak diruz laguntzeko erabiltzen da eta baliabide gutxiago dituzten heda-bideak gehiago laguntzeak luke zentzua, baina errealtatea ez da hori.

Publizitateaz gain, badira diru-laguntzak hedabideentzat Austrian?

Bai. Nolabait esateko, ia hedabide de-nak ari dira biziraupenerako borrokan eta gobernuak diru-laguntzak ematen dizkie, pluraltasuna bermatzeko meka-nismo gisa. Diru-laguntzetan, baina, 10 milioi euro banatzen dira denen artean, huskeria bat konparatuz gero publizita-te instituzional kontzeptuan banatzen dituzten 170 edo 200 milioi euroekin. Arazo handia da, bataila politikoa eska-tzen baitu hori aldatzeak eta ez da ikus-ten alderdi politikorik borrokari euste-ko gogoz. Halere, oso garrantzitsua da gaia, erabat baldintzatzen baitu infor-mazioaren mundua. Banaketa justua-goia izateko, proposamen bat litzateke diru-laguntzak handitzea denentzat, eta gutxi batzuek jasotzen duten publizitate instituzionala murriztea.

Diru horrek zenbat baldintzatzen du informazioa?

Galdera ona da. Ikuspegi zientifiko ba-tetik erantzuteko, eskatuko luke pu-blizitate instituzionalaren datuak gu-rutzatzea zenbait informazio ematean hedabideek egiten dituzten hautuekin. Ez dut egina, baina noski baldintzatzen duela.

Garbi al daude banaketarako irizpideak?

Ez. Nahiko malgu jokatzeko dute alderdi batzuek diru publikoa xahutzean, eta batzuek beti eramaten dute gehiago. Noiz edo noiz ateratzen da artikuluren bat haserrea adieraziz hedabideren ba-tean gai honi buruz, baina orohar ohar-kabea pasatzen den diru banaketa da.

Politikariak modu zabalean erantzungo lizukete, irakurle kopurua litzateke jus-tifikaziorako erabiliko luketen argudio bat, edo agian esango lizukete tabloi-deetan jartzen dutela iragarki gehia-go horien irakurleak hezkuntza maila txikiagoa dutelako eta irakurle multzo zehatz horrengana heldu nahi dutelako. Noski, argudio horri beti eman ahalko zaio buelta. Halere, jakitun izan behar duzu hemen hedabide batzuk oso indar-tsua direla, *Kronen Zeitung* egunkaria adibidez, 2000 urtean herrialdeko bi etxetik batean sartzen zen, %50eko au-dientzia zuen. Politikariak beldur han-dia zioten, eta oraindik ere badiote.

Politikariak beldurra diote hedabideei beraz, ez alderantziz?

Hori da. *Kronen Zeitung* egunkariak bo-terea du ministro baten aurkako kan-paina batekin pertsona hori guztiz sun-tsitzeko. Horrek botere handia ematen die publizitate instituzionala eskatzeko orduan.

Publizitate instituzionalaren banaketaz bada eztabaidarik?

Duela 10 urte izugarrizko eskandalua lehertu zen jakineznean gobernuak, eta batez ere, lehen ministroak erabateko astakeria xahutzen zuela bere aldeko kanpainetan. Erreforma batzuk egin zi-ren eta horregatik dugu gardentasun webgunean datu-base hau. Lehen ezin zen sitematikoki jakin nora zihoan di-rua. Gaur egun bada debate publikoa, baina nolabait esateko, "kalitatezko he-dabideek" bakarrik jorratzen dute gaia. Tabloideek eta abar ez dute aipatu ere egiten, eta kontutan hartuta beraiek di-rela diru gehien jasotzen dutenak, uler daiteke zergatik dauden isilik.

Zergatik erabaki duzu afera hau ikertzea?

Betidanik interesatu zait hedabideekin lotutako ekonomia politikoa. Batez ere, hedabideen jabetzak eta honek infor-mazioan duen eragina interesatzen zait. Eta aipagai dugun datu-basean publi-zitate instituzionalaren datuak jartzen hasi zirenez, pentsatu nuen datuok az-tertzea interesgarria zela.

Eta zein dira atera dituzun ondorioak?

Lehen ondorioak dira, oraindik ez bai-tut ikerketa guztiz amaitu. Halere, esan nezake harrituta geratu naizela ikus-tean hedabide nagusiek zenbaterainoko

dependentzia duten publizitate institu-zionalarekiko. Hedabideen jabe diren enpresen diru irabaziak begiratu eta horri kenduz gero publizitate institu-zional gisa ematen dieten diru publikoa, emaitza benetan da zur eta lur geratze-ko modukoa. Erabat menpekoak dira. Publizitate instituzionala banatzeari utziko baliote, egunkari gehienak desa-gertuko lirateke.

Publizitate instituzionala erabiltzen da beraz, Austrian ere, panorama mediatikoan status quo-a betikotzeko?

Bai. Hedabideek diru-laguntzak jaso behar dituzte, panorama mediatiko plu-rala bermatu nahi badugu behintzat. Baina sistema hau ez dago pentsatu-ta hedabide txiki edo independenteei bultzada emateko, ziurrenik txikiak la-gundu behar lirateke gehiago pluralta-sunaren izenean. Oso gai korapilatsua da, oso jende boteretsua dago zeharo inplikatura diru-banaketan, eta ez dute inola ere nahi egoera aldatzea. Publi-zitate-instituzionalaren banaketa ira-kurleen arabera egitea, pentsatuta dago hedabide bakoitza bere lekuan manten-tzeko sistema gisa. ●





**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

“ ”

Bageneukan iparra, baina beste jira bat ematera ausartu gara etengabe

Edurne Epelde, Amaia Zufia, Oihane Landazabal

Euskal Herriko Bilgune Feministako kideak

Duela hogeit hamar urte Euskal Herriko Bilgune Feministaren sorreran egondako bat –Edurne Epelde Pagola–, berriki kide egindako bat –Oihane Landazabal Bernabeu– eta bi hamarkadako ibilbidearen erdian kolektibo horretara sarturiko bat –Amaia Zufia Erdozain–. Hiruak juntatu ditugu eta Euskal Herriko Bilgune Feministaren hogeit hamar urteak estakuru harturik solasari lotu gara: egindako bidea, geroari begira jarritako erronkak eta xedeak, eta gaur egun dituzten gogoeta zein egitasmoak. Ukan dugu zer aipatua. Pertsonalaren eta kolektiboaren artean joan-jinka, ibilbide eta gogoeta kolektiboak eta pertsonalak uztartuz hitz egin digute.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN  DANI BLANCO

Noiz eta nola hasi zineten Euskal Herriko Bilgune Feministan militatzen?

Edurne Epelde: 2001ean hasi nintzen, Euskal Herriko Bilgune Feminista (BF) sortu aurretik Leitzan egindako emakume abertzale eta feministen Topaketekin. Bi lagunek –beraien artean nire ustez loturarik ez zutenak– proposamena luzatu zidaten, azalduz bazegoela eragile bat sortzeko asmoa. Zarauzko Sorginak emakume taldean militatzen nuen, eta entzundako horrekin berehala sentitu nuen horretan egon nahia. Ilusio handia sortzen zidan Euskal Herri mailan pentsatzeak eta eragiteak. Behar beharrezkoa ikusten nuen, garai hartako nire bizipena zelako feminismoa ez zela batere ongi etorria, ez zela

asko aipatua eta bigarren mailako borroka bat zela.

Amaia Zufia: Ni hasi nintzen 2014an, Ondarroako Topaketak baino pixka bat lehenago. Bertan aurkeztu genuen burujabetza feministaren proposamena. Ni gehiago nentorren gazte mugimendutik eta azkeneko urteetan feminismoarekin topo egin nuen. Niretzat inflexio puntu handia izan zen 2012ko Leitzako Topaketena: hor ikasi nuen guztia, egin genuen parranda... Ondotik etorri ziren gazte mugimenduen topaketa batzuk, lan-taldea sortu genuen, harremantzeko moduez eta militantzia ereduaz gogoetatzeko, eta ni feminismotik ari nintzen batez ere. Orduan jaso nuen BFn sartzeko proposamena. Animatu nintzen, iruditzen

zitzaidalako nik landutako bide guztiek bat egiten ahal zutela BFekin –bai pertsonalki baita maila kolektiboan ere–.

Oihane Landazabal: Ni iaz sartu nintzen. Nire militantzia feminismoan ez da BFn hasi, Euskal Herriko Neska Gazteen mugimendutik nator. Topaketa ezberdinetan parte hartu izan dut, gogoratzen dut Ondarroakoa izan zela lehenengokoa, beraz nahiko gaztetik, oso hartzaile eta ikusle posiziotik. BF erreferentzia bat izan da beti, eta gazte zikloa bukatuta oso modu naturalean sartu naiz. Euskal Herriarentzako eta Euskal Herritik, euskaraz eta euskaratik prozesu feminista bat irudikatzen duen antolakundea da eta nire ekarpena hor irudikatzen dut.



Oihane Landazabal Bernabeu (ezkerrean) eta Edurne Epelde Pagola (eskuinean), ordenagailu bidez konektaturik dagoela Amaia Zufia Erdozain.

2001ean plazaratu “Berdintasunean oinarritutako Euskal Herria sortzera goaz” ekimenean oinarriturik sortu zenuten BF urte bat berantago. Zein ziren arrazoiak eta zein zen garaiko giroa?

E. Epelde: Giroarena garrantzitsua da. Uste dut garai hartan nazio eraikuntzaren ideia, ideologia eta egin-nahia nagusitzen zela militantzian edo nazio askapen mugimenduan geunden pertsonetan. Politikoki oso garai nahasia oroitzen dut: gatazka politiko armatua oso bizirik, nahiz eta aurreko hamarkadetan ere, baina 2000ko hamarkadan gori-gori zegoen; ilegalizazio prozesua orduan hasi zen, eta horrek zekartzan militante askoren atxilotetak, izuak, erantzunak, baina aldi berean eraiki nahia ere. BFren sorrera hor kokatzen dut guztiz: herri bat –berdintasunaren oinarriak dituen herri bat– eraiki nahia. Egizanek bere ibilbidea etetea erabaki zuen, ezker abertzaleak barne prozesu feministak bat eraiki zuen... Giro horretan 2001eko martxoan beren burua feminista eta

“ ”
BFren sorrera hor kokatzen dut: herri bat –berdintasunaren oinarriak dituen herri bat– eraiki nahian

Edurne Epelde

abertzale gisa izendatzen zuten txoko ezberdinetako hainbat emakume batu ziren, berdintasunean oinarrituriko Euskal Herri bat sortzeko nahia erdiratuz. Lehenengo topaketa abertzale eta feministak antolatu ziren Leitzan. Saretze lan garrantzitsu bat hasi zen. Eremuz eremu diagnostiko bat egitea proposatu zen eta diagnostiko horretan baieztatu zen

eragile baten beharra.

Orokorrean desertu moduko bat zen feminismoaren aldarria: giroan ez zen beharrik somatzen; mugimendu feminista 1994an elkartu zen azkenengo aldiz; baziren aliantza txikiak –alardeari lotuak edo Emakumeen Mundu Martxaren plataforma ere orduan sortu zen–, baina asanbladak ez zeuden oso azkar; gainontzeko borroka kolektiboetan eta nazio askapen prozesuan feminismoa bigarren mailakoa zen... Akiulu lanak egingo zituen eragile bat behar zen eta nik hortik oroitzen dut sortu genuela. Ezberdin egin beharra sentitzen genuen, ezin genuelako ordura arteko herri askapen mugimenduaren militantzia ereduaren baitan egin; baina aldi berean ez genekien nola egin, zeren gu ere eskola horretakoak ginen [irria]. Kurioso da elkartu ginela nazio askapen mugimenduan zeudenak eta emakume taldeetan edo talde feministetan gehiago egon ginenok. Egiteko moduetan talka bat ere bazegoen gure artean, eta horiek mahai gainean jartzen hasi ginen.

Oihane, 8 urterekin zuk nekez, baina Amaia, zuk gogoratzen duzu hasiera?

A. Zufia: Ez dut gogoratzen sorrera, 12 urtetxo nituen. Institutu garaian, ordea, gogoratzen dut herri mugimenduan zegoen erreferente feminista euskaldun gisa. Feminismoan debate asko egon dira eta gure hitzekin eta gure kontestura ekarrita zer erran nahi duten ulertzeko erreferentea izan da. Hortik haratago, errango nuke nire nerabezaroan eta gazararoan itsasargi bat zela beti, pertsonalki genituen hainbat korapiloren inguruan amamia eta elikadura lortzeko, direla sexualitatea, eraso, edota plazera.

E. Epelde: Zufik [Amaiak] dioenean beretzat iturri bat izan zela, harrotasuna sentitzeaz aparte, esaten dut “jo, gure garaian iturri feministak zein ziren?”. Oso guti ziren. Teoria feminista edo queer teoria bazeuden baina ez zeuden Euskal Herriratuak, euskaratuak... 2015etik aurrera feminismoaren inguruan euskaraz publikatu da pila bat, baina ordura arte euskaraz feminismoaren inguruan ez zen ia ezer publikatu. Guk txostenak asko atera ditugu [irria], horretan ados nago eta lanerako eta eztabaidatzeko materiala bagenuen. Baina argitalpen formalak... garai batean ez genuen Lisipe, txostenak genituen. Eztabaida horiek ez ziren gure iritsiak. Hasiera hartan gure logika ez zen burujabetzarena, gurea eskubideen aitortza zen: herri honetan emakumeok populazioaren erdia gara eta geure eskubideen aitortza ezinbestekoa da. Horrek bere momentuan eman zigun lan ildo oparo bat, gero erabat agortu zena, baina jarri gintuena batetik 2007an kaleratu zen Euskal Emakumeen Eskubideen Kartarekin eta horren aurretik tesituran –zer dira eskubideak? Zer da herritartasuna? Zer da pribatua?–. “Pertsonala politikoa da”, hori gaur egun denok diogu, baina orduan ez zen modu formalean feminismoaz ikasten. Gu hor ginen eta gure artean ahal zena egiten genuen.

O. Landazabal: Ez daukat oroitzapenik, baina pentsatzen dut eskatu zizuela feminismoan murgiltzeaz gain –oinarriak, korronteak eta eztabaidak bereganatzea–, feminismoa erdiguneratu beharra ere. Horrek suposatuko zuen sekulako tentsioa, izerdia eta lan itzela –are gehiago, bazegoelako guzti hori euskal eskala batean kokatzeko ardura–.

E. Epelde: Zentzu horretan gure presentzia desatsegina zen, tentsio handiko momentuak izan ziren. Azkenean, iristen ginelako beti gure asteriskoarekin

–“atal hau ez duzue sartu”, “berdintasun ikuspegitik hau eta hura”, “emakume militanteak badaude kolektiboetako eremu mistoetan?”–. Interpelazioaren eta elkarlanaren arteko dantza bat zen. Intentsitate handikoa izan zen, baina aldi berean, geroz eta konbentzitu gehiago ginen, eta pixkanaka gu egon gabe ere eragileetan zeuden feministak hasi ziren lan hori egiten. Sare hori harilkatu zen. Hori zen ideia: emakume feminista guztiak bilduko zituen bilgune bat izatea. Ez zen feminismoaren txapel burubakarra bihurtu, beharbada momentu horretan horrela irudikatu genuen, baina ez zen horrela izan.

“ ”

*Familia asko gaude
BFren barruan eta
guztien batuketak du
BF hain interesgarri
egiten*

Amaia Zufia

Nola egin da bidea? Abiadura handian? Nekez eta ahal bezala? Pauso bat aurrera eta lau atzera?

E. Epelde: Ez daukat aurrera eta gero atzera ginenaren oroitzapenik. Daukat sentsazioa emandako pausoak sendoak izan direla. Gure errealitatean genituen beharrei erantzuten joan gara, onartuz hasierako anbizio politikoa oso handia zela –eskubideen karta osatu, bermea emango zion emakume kontseilu bat...–. Bageneukan iparra eta bueno, joan gara onartzen momentu bakoitzean non geunden, ipar hori eraldatzera ere ausartu gara, beste jira bat ematera ausartu gara etengabe.

Orduko kokalekutik eta girotik ez nuen inoiz imajinatuko gaurkoa posible izango zenik. Teoria feminista hasi denean herriratzen, BFK egin du etengabeko ariketa, iturri horiek gureratzeko eta uste dut asmatu dugula aktualitatean zeuden behar eta nahiei pausoz pauso erantzuten. Herrietako emakumeen taldeetan euskara izan da tresna bat, baina alianztzen garaian BFK apustu sendoa egin zuen euskaraz sortzeko eta izendatzeko

feminismoa. Agian batzuk ez dira aitortzen ausartuko, baina ni bai: guk jarritako oinarri horrek posible egin du feminismoa ere euskaraz ekoiztea.

Beste zer nabarmenduko zenukete hogeit urte horiei dagokionez?

A. Zufia: Igual hasiera batean irudikatzeko eremuz eremukako feministak saretuko zituen BF bat, baina gero praktikak eraman gintuen herrietan antolatzen. Herrietan gertatzen da bizitza: gertuko prozesuak, aliantzak, indarkeariaren aurkako protokoloen aktibazioa... Herrien artean izan dira ibilbide oso ezberdinak, jatorri eta ildo ezberdinetako militanteak batu dira. Esango nuke familia asko gaudela BFren barruan, eta niretzat, guztien batuketak du BF hain interesgarri egiten.

Bestalde, 2009an egon zen inflexio puntu oso inportantea. Tolosako Topaketetan sartu ginen identitateen eta subjektu feministaren eztabaidan. Garrantzitsua izan zen hor egondako irekiera eta nork bere leihoak zabandu izana, beste diskurtso eta praktika batzuetatik ikasteko eta igual ezezaguna zen horri beldurra kentzeko. Hein handi batean horrek eta prozesuak zein jendea zaintzean oinarrituriko militantzia ereduak ekarri gaituzte honaino –eragile politiko eta sozial askorentzat mintzakide izateraino eta mugimendu feministan aliantza pila bat izateraino–.

E. Epelde: 2014an burujabetza feministaz, trantsizio feministaz hitz egiten hasten garenean badago gure irakurketetan aldaketa bat: lurraldearen eta gorputzaren burujabetza aldarrikatzearekin salto bat ematen da, Zufik [Amaiak] nabarmenduriko Tolosako Topaketei guztiz lotuta. Garapen logiko baten barruan ematen da bidea, ondotik zaintza, autodefentsa edota osatze feministarekin egin dugun ibilbide luzearekin osatutakoa.

O. Landazabal: Nik jaso dut BF bat politikoki eta ideologikoki oso jantzia, oso proposamen sendoekin. Zuek ezagutzen dituzue tripak, zelan heldu zareten honaino, baina egia da gaur egun antolakunde esanguratsua dela, eta Amaiak esaten duen bezala, bada nor eta bada eragiten duen agente bat. Belaunaldi berriak feminisмотik politizatzen ari diren honetan, olatu hori hartzeko gai izan gara, eta asmatu dugu. Herriz herri mugimendu feminista hauspotzen ari gara.

E. Epelde: Guztiz lotuta daude Euskal



Herri mailako BF eta herri mailako dinamikak, noski, baina BF asko daude BFren barruan. Herri mailan aliantzak eta koordinadorak eutsi ditugu, belaunaldi eta kolektibo ezberdinetakoekin, diskurtsoetan adostasunak bilatzeko ahaleginak egin ditugu. Oso aberatsa izan da eta eutsi ditugu Martxoaren 8ak, Azaroaren 25ak, Ekainaren 28ak. Eta askotan ez gure izenean.

Bilgunea eta aliantzak, bien arteko oreka bilatzen.

E. Epelde: Hori ere hausnartu izan dugu, eta egia da askotan utzi dugula alde batera BFren abizena, aliantza errealego batekin amesten dugulako. Uste dut horrela planteatzearekin asmatu dugula.

O. Landazabal: Estrategikoki aliantza zabal baten beharra ikusirik, gure inbertsio guztiak bideratu ditugu horretara. Horretan sinesten dugulako. Baina egia da desoreka txikiren bat noizbehinka egitea ondo legokeela: asko gara esatekoak ezkutuko lanak ikusarazi behar direla... a zer ezkutuko lana egiten den BFtik! Tarteka, lehentasunak zeintzuk diren

jakinda, horri leku bat ematea eta aitor-tza eskaintzea garrantzitsua da... baina ez dakigu bestea bezainbeste egiten.

A. Zufia: Txanpon horren beste aldea da agian BFren espazioak ez ditugula horrenbeste zaindu. Greba orokor bat, gero Martxoak 8, gero Azaroak 25, gero dator abortuaren ez dakit zer... intentsitatea hain da handia! Orduan, noski, seguruenik ez ditugu horrenbeste zaindu BFko hitzordu batzuk edo ongi pasatzeko osagaiak. Agian jende berria erakartzeko momentuan ez da hain militantzia erakargarria. Askotan feminismoan bilatzen ditugu espazioak hazkuntza pertsonalerako eta gure tribua osatzeko. Alde batera edo bestera desorekatzen da... alta, oreka horretan dago gakoa.

E. Epelde: Desoreka horretaz kontzientean, gogoan dut Ondarroako Topaketetan esan genuela "goazen BF goxatzera!".

Irakurketa interseksionala dauka BFak. Araka ditzagun gure bazterrak, kritika dekolonialak zeharkaturiko ibilbide bat liburua atera berri duzue Emagin-eko lagunekin. Nola doa

abiatutako prozesu dekoloniala?

A. Zufia: Liburuan hitz egiten dugu izan ditugun *klak* egoera pertsonal eta kolektiboen inguruan. Zein deserosotasun, zein hazkura, zein haserre sentitu ditugun, zein interpelazio jaso dugun, baita zer nolako eskuzabaltasuna militantzia kide batzuen partetik ere... Urteetako bidea izan da, besteak beste, Euskal Herriko Mundu Martxan edo Mujeres del Mundo elkartearen eskutik urratu duguna. Beste *klak* kolektibo handi-handi bat izan zen Durangoko Salda Badago-ko mahai-inguru dekolonialekoa. Hainbat galdera planteatu dizkiogu geure buruari: emakume euskaldun eta zuri moduan zein da arrazakeriaren aurkako borrokan hartu nahi dugun papera? Zein da guri ez dagokiguna? Zer nolako zubiak eraikiko ditugu emakume migratzaile eta arrazializatuekin? Zein agenda feminista eta antiarrazista euskaldun artikulatu behar dugu? Zein dira erreproduzitzen ditugun jarrera arrazistak? Guk zein pribilegio dauzkagu? Nola zabaldu euskara eta euskal herrigintza kide migratuei?

E. Epelde: Modernitate zuriaren herri-

tartasun ereduaren sorreran euskaldunok zein paper izan genuen, zer nolako konplizitatea daukagun kolonizazioan eta neokolonizazioan...

O. Landazabal: Kolonizazio prozesuen irakurketa arduratsua egitea dagokigu, bai, begirada gaurkotzea. Gertatzen dena da, eta egin dugun barne prozesuan zintzotasunez atera da, kulturalki eta hizkuntzaren aldetik herri zapaldua izanik, nolabait behar dugula “gureaz” ere kontakizun partekatu bat eraiki. Mundu globalizatu honetan estaturik gabeko nazioa eta hizkuntza gutxitua izate hutsa biziraute ariketa bat da, eta uste dut hor gotortzen garela. Normala izango da... Gakoetako bat elkarrekiko aitortzan eta enpatian dago, nik uste. Egia da mugitzen gaituen gai bat dela, baina atea zabaldu dugu eta hori ere bada erabaki ausarta, agenda politikoan eta lehentasunetan jartzea.

A. Zufia: Subjektu anitz baten alde egin dugu, ez subjektu bakar eta homogeneo baten alde, azkenean errealitatea oso anitza delako. Esango nuke hori dela feminismoak daukan potentzialtasun handiena. Batzuetan zailtasuna ere badena,

“ ”

**Sistemaren ertz
guztietatik borrokatu
behar gara,
zapalkuntzak era
artikulatuan ulertuz**

Oihane Landazabal



ez delako erraza diferentzia kudeatzea, elkar entzutea eta elkar aitortzea. Gure arteko bereizkeria egoerak ezkutatu gabe, borrokarako espazioak ahalbidetzea, hori da daukagun helburu handienetarikoa.

E. Epelde: BFK beti eduki du bazterreko kolektiboari ahotsa ematearen obsesioa. Jatorri askotariko emakumeekin ere beti egin da saiakera handia elkarlanerako eta harreman konplizeak eta aliantza politak sortu ditugu. Gogoratzen naiz behin eta berriz ateratzen zela etxeko langileen gaia. Etxeko langileen elkartekoan eskaera etengabea zen guk lehen lerroan ezartzea beraien borroka. Ez genuen egiten eta joaten zen atzeratzen. Zergatik? Gutako inor ez zelako etxeko langilea? Gutako guti izan den bezala emakume baserritar edo trans... Beti eduki dugu kolektibo horiekin harremana, baina beti lehenetsi izan ditugu gehien hunkitzen gintuzten gaiak. Kanpoko exigentziak eta interpellazioak handituz joan dira, eta hortik egin gabe genuen ariketa hori egiten jarri gara. Horrek jartzen gaitu egoera batean zeinetan gatazkak kudeatzeko gaitasunak lantzea dagokigun. Ez dugu beste aukerarik. Sentitzen dut pribilegioen auzi honetan askotan lehertzen direla gauzak modu erasokorrean eta lanketa hori egiteke dugu.

O. Landazabal: Gai izan bagara Euskal Herriko gatazka politikoaren inguruko begirada berriak feminisмотik txertatzeko, izan behar gara gai egoera gatazkatsu oro beste modu eta toki batetik lantzeko.

E. Epelde: Aldi berean gatazkarik gabe ez dira gauzak aldatzen. Dekolonialitatearen auziari dagokionez asko enpatizatzen dut, espazio mistoekin guk esaten genituenak guri aurpegiatzen dizkigutelako orain. Garaian pentsatzen genuen batzuetan gatazkak lehertu behar zuela, deserosoa ez deino ez delako ezer aldatzen.

Emakumetik emakume*-ra, eta Oñatirako deia emakume, bollera eta trans-ei. Feminismoaren subjektuari buruzko gogoeta ere nabari da.

E. Epelde: 2009 inguruan –Euskal Herrian transfeminismoa sortu zen garai berean– “sexualitate lan taldea” sortu genuen. Lan-taldearen ibilbidean bi dokumentu interesgarri kaleratu ditugu: *Sexualitatearen Eztabaida* 2013an, sexu/genero bitartasuna ezbaian jartzen duena eta *Transexualitateak* 2018an, koadernoan, hezitzaileei



Duela hogeit urte, 2002ko apirilaren 20an Donostiatik eman zioten hasiera Euskal Herriko Bilgune Feministari.

↓ "Indar bat gara gu" leloa aukeratu zuten duela bost urte Berriozarren egindako Emakume Abertzaleen Topaketa Feministen kari.



eta militanteei begirakoa. Nire ustez, emakumeen kategoriaz gain eta harago, beste identitate eta izendatze batzuk plazaratzeko ahaleginean ari gara. Izan ere, kide batzuk ez dira emakume kategorian hain eroso sentitzen, eta beste batzuk oraindik orain beharrezkoa dela sentitzen dugu. Eztabaida interesgarri batean murgildurik gaude, momentuz galdera gehiago ditugu erantzun eta formula egokiak baino.

O. Landazabal: Hala da. Mugimendu feminista anitza dela esan dugu aurretik, subjektu poliedrikoa osatzen ari gara. Horrek gorputz, sexualitate eta identitate ez hegemonikoei begira jartzea ere eskatzen du. Egia da diskurtsoetan eta izendapenetan txertatzen ari garela, eta garrantzitsua da, errealitate berriak sortzen dituelako. Baina oraindik ere gure mugimenduan eta praktiketan islatzea falta da, militantzia espazioak

berrantolatu eta eraldatu behar ditugu, denontzat bizigarriak izan arte.

Ikuspegi interseksionala eta klase ikuspegia. Auzi horrek berriz lekua hartu du. Nola begiratzen diozue eztabaida horri?

E. Epelde: Munstro buru anizdunaren ideia azpimarratzen dugu Lisipe liburuan: eraitsi nahi dugun etsaia munstro bat da, buru anizduna. Munstro hori denontzat bera da, gero berari begiratzen diogunean bakoitzak bere interpretazioa egiten du, eraldaketarako prozesua bere modura izendatzen du. Borroka subjektuaren inguruan eztabaida nagusitu da eta ez zait gustatzen gure arteko etsaitasuna, zeren irakurketa ezberdina izan arren, eraldatu nahi dugun gizartea bera da, ezta? Gainera, herri berean bizi gara, beraz, elkarrekin zerbait egin dezakegula uste dut. Irakurketak, moduak, uler-

menak ongi etorri denak –gainera, duela 40 baita 20 urte ere bizi izan genituen horrelako eztabaidak, ez da berria eta elkarrekin bizi izandu gara–.

A. Zufia: Uste dut batzuetan sortzen dela dikotomia bat, faltsua dena. Alde batetik dago identitateen mundua eta bestetik dago mundu materiala. Identitateez, heteroarauaz, binarismoaz, transexualitateaz hitz egitea kasik zerbait biguna bezala ikusia da, neoliberalismoak erraz asumitu dezakeen zerbait bezala. Hain da faltsua hori! Erabat lotuak daude biak: aitorua izatea, nor izatea, hori dugu esplotazio egoerei aurre egiteko oinarritzko baldintza. Zentzu horretan feminismoak zabaldu du ezkerreko subjektu hegemoniko monolitiko hori, dominazio sistema oso anitza dela ohartaraziz. Munstro horrek buru ezberdinak ditu eta segun nori, kolpatzen dio gogorrago ala gutxiago. Orduan, subjektua ere anitza da, subjektu identitate ezberdinak daude eta saretu beharko ditugu, zapalkuntza egoera ezberdinak elkar gurutzatzen direlako. Trintxerak baino gehiago, bilatu behar ditugu borroka komunak artikulatzeko helburuak, bilatu behar ditugu palankak. Uste dut asko daudela berez, baina...

O. Landazabal: Aldatu dira kapitalismoak dituen esklabutza formak eta zapalkuntza moduak, eta horrek erantzun eta logika berriak eskatzen ditu. Sistemaren ertz guztietatik borrokatu behar gara, zapalkuntzak era artikulatuan ulertuz. Eta horrek, langile borroka eraberritu bat behar du, subjektu askatzaile komun baina anitz batek gidatuko duena.

E. Epelde: BF bizi baldintza materialak erreklamatzeko aritu da beti eta aldarrikapen horiek inoiz baino beharrezkoagoak dira. Badirudi pixka bat despistatuta gaudela eztabaida teoriko zenbaitetan, kalean aldarrikatzen egon beharrean. Bizi baldintza materialen alde borrokatzeko garaia da, eta badirudi oraindik badaukagula zer galdua, zeren bestela ez ginen gauden tokian egongo. Ez gaude oraindik kalean baina hori badator, eta uste dut hor bat egingo dugula, ez zaigulako besterik geldituko. Ikuspegi materialista hori beti eduki dugu BFñ –adibidez *Duintasunen premisak* dokumentuan 2009an–.

O. Landazabal: Gehituko nuke, feminis- motik ere ari garela bizitzak sostengatzeko guzti horri begiratzen eta aitor-tza egiten, lanaren ikuspegi integral bat planteatuz. “Bizitza *versus* kapitala” binomioaren logika mahai gainean jartzearekin asmatu dugula uste dut.



Hogei urte hauetan afitxa bidez ere aldarriak eta gogoetak zabaltzen aritu da Euskal Herriko Bilgune Feminista.

Geroari begira jarri gaitzen. Nolakoa nahi zenukete BF eta mugimendu feminista hemendik 20 urtera?

A. Zufia: Ni hasiko naiz *brindis al sol* ["eguzkitan topa"] bat egiten [irria]. Irudikatzen dut BF elkartuko dena balorazio bat egiteko euskal zaintza publiko komunitarioaren lorpenaz; atzeritartasun legea atzera bota izanaz; azkeneko preso politikoa herriratu izanaren ospakizunaz eta horren kontakizunean irakurketa feminista txertatu izanaz; euskal hezkuntza sisteman publikoa eta burujabea hobetzeko proposamenaz; gorputza eta sexualitatearen inguruko begirada ezbinarioa eta harreman askatzaileagoak zabaldu izanaz; trans lege euskaldun bat lortu izanaz; euskara bermatzeko baliabideak eskuratu izanaz...

E. Epelde: Gustatu zait ametsa, begiak itxi eta bat egin dut!

O. Landazabal: Ez dakit hain baikor, baina, bai bestelako estadio batean eta agertoki berriekin irudikatzen dudala. Duela hogei urte ziurrenik ez genuen imajinatu sistema publiko komunitario baten beharra eta horri begirako bide-orria erdigunean jartzen egongo ginenik. Uste dut premisa horretatik egin beharko genukeela ariketa. Erabaki politikoak baldintzatuko dituen BF bat datorkit burura, Euskal Herri burujabe eta feminista baten bidean, herri honi erronka berriak planteatuko dizkiona, eta mugimendu feministarekin batera eztabaida eta norabide berri horiek lideratuko dituen.

A. Zufia: Gehituko nuke irudikatzen dudala antolatzen, elkar zaintzen, elka-

“ ”

Askotan utzi dugu alde batera BFren abizena, aliantza errealago batekin amesten dugulako

Edurne Epelde

rrekin gozatzen eta borrokatzen dakien komunitate politiko eta afektibo bat egongo dela hor, edozein izen duela ere.

O. Landazabal: Zalantzarik gabe esan dezaket egon egongo dela lekukoa hartuko duenik, eta horrek ematen digu etorkizun hurbila anbizioz irudikatzeak aukera. Indartsua den BF bat daukagu, kualitatiboki herri honetan pisu handia duena.

Topaketa Feministak dituzue laster Oñatin. Zer nolako momentua izanen da zuentzat?

O. Landazabal: Izan behar du bereziki-bereziki ospatzeko momentu bat. Gozatzeko, elkarrekin egoteko eta elkar ezagutzeko. Egindakoa balioan jarri, eta aurrerantzean ditugun erronkei kementsu heltzeko balio behar dute topaketek. Eta, noski, BFren sarea indartzeko ere bai!

A. Zufia: Kontatu zigutenez, hasierako urteetako lorpen handienetakoa izan zen parrandak egitea eta ongi pasatzeko espazioak izatea BFn. Hori ere politikoa da. Hor sortzen dira harreman afektiboak, ligeak eta denetarik, eta horretarako ere militatzen dugu. Orduan uste dut topaketa horiek direla hasierako lorpen horien eztanda bat. Eztandak dardara gaitzala! [irria].

E. Epelde: Bat egiten dut. Niretzat berezia da, BfK ez duelako inoiz antolatu horrelako festa handi bat eta ausartu delako ospakizun itxurako ekimen bat lehenesten. Merezki dugulako. Amesten ari bagara komunitate bat zeinetan gure harreman afektiboak eta gure gorputzak burujabe izango diren, orduan praktikan jarri behar dugu. Izango da praktika handi bat elkartzeko, topatzeko, ligatzeko... Adin desberdinetako emakumeak elkartzeko topaketa ere izango da, niretzat hori garrantzitsua da. Oñatin antolatzeko apustua ere ausarta da. Kuriosoa da BfK beti hautatu izan dituela herriak. Elkartuta eta batuta egon behar dugu, bizitzten ari garen garaiak ez direlako errazak zentzu askotan. Elkar begiratzeko tarteak eskainiko dizkiguten espazioak inoiz baino beharrezkoagoak ditugu, kolektiboa aldarrikatzea inoiz baino beharrezkoagoa dugu. Feminismoan ere nominalizazio asko dago –eta behar dira–, baina feminismoa modu kolektiboan egin daitekeenaren adibide handi bat da BF. Horren adierazle izango da aste-buru hori. ●

LETICIA VÁZQUEZ ESTEBAN

“Hezkuntza-sistemak irakasten digun guztia zalantzan jartzean oinarritzen gara”

Mexikoko Tosepan kooperatiban burujabetzak garatzeko dituzten proiektuez jardun dugu 23 urteko masewal emakume honekin. Nawat eta totonaku hizkuntzak biziberritzeko proiektuaren koordinatzailea da kooperatiban eta autoeraketaz, genero harremanez eta lurraldearen defentsaz mintzo da, besteak beste. Garabidek antolatutako Hizkuntza Gutxituak Biziberritzeko Lankidetza ikastaldia egiten hilabetez izan da Euskal Herrian, beste hamabi hiztun komunitateko kiderekin batera.

Nola kokatzen duzue hizkuntza biziberritzeko proiektua zuen komunitatearen eta lurraldearen garapena lantzeko ildoei lotuta?

Duela 43 urte Tosepan kooperatiba komunitateek zituzten premiengatik sortu zen: azukrea, kafea eta piperbeltza bidetzko prezioetan saltzeko. Hortik aurrera, behar gehiago identifikatzen joan gara: aurrezki eta mailegu kooperatiba, osasun kooperatiba, eskola txikia, turismo kooperatiba... Elementu garrantzitsuak gehitzen joan ziren urteetan eta denak zentzua izan behar zuela hausnartzen hasi ginen. Nortasunari buruz hitz egiten hasi ginen, jantziez eta dantzez harago, gure hizkuntzaren erabileraren galera arazo gisa ulertzen. Nortasuna,

 ASIER BASURTO ARRUTI  IBAI ARRIETA



kultura eta hizkuntza beste elementu estrategiko bat bezala gehitu ziren bizitza ona (*yeknemilis*) deskribatzeko daukagun zuhaitz batean; eskema integralean.

Beste hizkuntza-komunitate batzuetako jendea ezagutu dugu, hizkuntzaren gaia bakarrik lantzen dutena. Baina guretzat, denak guztiarekin duenez zerikusia, argi dago ezin dela aurrera egin modu integralagoan ez bada. Ezinezkoa da hizkuntzaren gaia lantzea zer jan ziurtatuta ez badaukazu, urik ez badago, energiari ez badago, etxerik ez badago. Ezin duzu pertsona baten bizitza duindu, ezta ondo dagoela ziurtatu ere, hori gabe. Beraz, ezin duzu nawa hitzunik ziurtatu.

Tosepan kooperatiban hasieratik jarri zen identitatearen gaia mahai gainean, baina ez zen hori jorratzeko ekintza espezifikorik gauzatzen. Duela bederatzirte hasi ginen Garabiderek lanean. Eta geroago gure zuhaitzean sartu zen gaia. Lurralde antolamendu batzorde ofizial bat ere sortu zen eta erakundeek komunitateon autonomia aitortzeko argudio garrantzitsu bat izan zen nawak garela; indigenak garela.

Nola garatzen duzue zuen eraldaketa-prozesuak elikatzen dituen pentsamendua?

Prestakuntza-zentro bat dago (*Kalnemaxtiloyan*), eta prestakuntza-aretoak ditu, jateko tokiak, etab. Beteta dago beti, prestakuntza-eskaintzaren bat dagoelako. Adibidez, finantza-hezkuntzari buruz, gazteentzat edo edukiak ekoizteko.

Dagoeneko onartuta ditugun ideia batzuk zalantzan jartzen dira, eta ikuspegi kolektiboa, kooperatiboa, giza eskubi-deena, soziala eta solidarioa ematen zaio guztiari. 50 bat kide sustatzaile aritzen dira informazioa ematen eta batzarrak antolatzen. Horietan elkarriketak irekitzen dira, beti presarik gabe, eta asko hitz egiten da, galdetzen da, irizpideak ezartzen dira.

Beraz, elkarriketa da hezkuntzarako eta erabaki kolektiboetarako tresna nagusia?

Elkarriketa eta informazioa. Beti pentsatzen dugu komunitate-klabeen. Telefonia mugikorra behar dugu? Zertarako? Kafea saldu behar dudalako behar dut, bizilagunari lapurtzen ari bazaizkio abisatu behar diodalako, landareak argazkiekin dokumentatu behar ditudalako... Hezkuntza-sistemak erakusten digun

guztia zalantzan jartzean oinarritzen gara, baita Interneten aurkitzen duguna ere.

Jendeak tresnek nola funtzionatzen duten jakin behar du, baina baita horiek erabiltzeak sor ditzakeen arazoak ere: egun berean giga guztiak xahutu ditzakezula, zer den lorratz digitala. Informazio hori guztia gure hizkuntzan eskaintzen dugu.

Energiari dagokionez, azaldu behar da eguzki-panelak dituzulako ez dela egin beharreko eraldaketa amaitzen. Nondik dator paneletako litioa? Mendietatik. Beraz, kontsumoa gutxitzeaz hitz egin behar dugu.



Munduaren beste aldea ezagutzean zeure burua ezagutzen duzu, pertsona guztiz desberdinekin egindako harremanekin”

Zein da administrazio publikoekin duzuen harremana?

Autogestio prozesu bati ekin genion Mexikoko Gobernuak komunitateen oinarritzko eskubideak ahalik eta gutxien bermatzen zituelako. Horretarako sortu ziren kooperatibak, gobernuak asetzen ez zituen beharrak asetzeko. Urte haueetan zehar pare bat aldiz, lortutako emaitzengatik, gobernuak hurbildu egin zaigu. Eta gu ere hurbildu gara. Izan ere, ez dugu ukatzen Mexikoko zati bat egiten dugula; ez gara Mexiko, baina Mexikoko zati bat egiten dugu. Eta hartzen diren erabakiek eta legeek eragiten digute.

Kooperatiban dugun eskola txikia guk ordaintzen dugu eta ez Gobernuak. Eskolak nawat hizkuntzan ematea behar dugu, nekazaritza bizimodua irakastea... Gure diru-sarreraren zati benetan handia kontsumitzen digu. Maitasunez egiten dugu, baina zergatik izan behar du horrela? Irakasle gobernuak ordaintzeaz hitz egiten ari gara.

Programa publikoak aprobetxatu ditugu, komunitateen behar batzuk gauza-

tzeko. Egoeraren arabera guneak izan dira, eta ez dira beti errespetatu izan gure lan-proposamenak. Elkarriketarik ez dagoenean, ez dagoenean entzute-jarrerarik, ez dugu egiten. Batzuetan asko higitzen du harreman horrek.

Genero arteko harremanei dagokionez? Lantzen al dituzue? Izan al da aldaketarik denboran zehar?

Jarrera kritikoagoa dut hor. Gai horretan, kooperatiba pixoihaletan dago oraindik. Erabiltzen dugun zuhaitzean, lerro bakar batek ere ez du emakumeen bizitza-planaz hitz egiten. Zuhaitzaren beheko aldean balioak daude. Ekitatearen balioa dago, baina ekitate hori ez da genero-ekitatean ardatzen. Emakumeak kooperatibaren % 74 gara. Niretzat argi dago emakumeek behar duguna kooperatibaren beharra izan behar dela.

Kooperatiban edo komunitateetan ez ditugu baldintza berdinak bizi. Kooperatiban gehiago erabiltzen da hitza, emakumeak ahaldunduago daude. Baina zure etxera iristen zara eta emakumeek ustez bete behar duten rola betetzen jarraitzen duzu: zaintza, etxeko zereginak... eta hori ez da zalantzan jartzen. Hala ere, uste dut kooperatibak, zuzenean landu gabe edo genero-ildo espezifiko bat izan gabe, izugarritzko ekarpena egin duela kide askoren ahaldundutzean. Emakume kooperatibista bat ez da prestakuntza jaso ez duen emakume bat bezalakoa. Askok nabaritzen da. Gehiago hitz egiten duten emakumeak dira, gehiago egiten dutenak, beren komunitateetan lidergo-postuak dituztenak, erabakiak hartzen dituztenak.

Baina, era berean, uste dut emakumeekin lotzen diren zeregin eta espazio jakin batzuk erreproduzitzen jarraitzen dugula (tortilleria bat, marmeladaren ekoizpena). Beti zaintza, jaten eman eta osasunari lotutakoak. Energiari buruzko prestakuntzan 50 baino gehiago ginen eta bi emakume bakarrik. Hor uste dut kooperatibak ez duela nahikoa zalantzan jarri. Motel doa aurrera. Denbora gehiago eskaini beharko genioke.

Zeintzuk dira nawat eta totonaku hizkuntzen erronka nagusiak egun?

Estandarizazioa erronka handia da. Nawat hizkuntzak 23 aldaera ditu. Idaztea eta irakurtzea zaila da. Desberdin idatzita ikusten duzu toki batean eta bestean. Gainera, mundu guztiak ez daki irakurtzen. Estandarizazioak espazio asko irabazteko eta funtzio berriak es-



kuratzeko aukera emango liguke. Aha-
leginak egin dira, baina ez dago behar
adinako adostasunik. Mexikon gehien
hitz egiten den hizkuntza indigena gara,
1.600.000 hiztun baino gehiagorekin,
eta beste hizkuntza txikiagoei baino
gehiago kostatzen zaigu adostea.

**Zein eremutan dago indartsu nawat
hizkuntza eta non dago ahul? Noiz
eta non da beharrezkoa nawat?**

Gure hiztun kopurua gutxituz doa, hiz-
kuntza transmititzeari uzten zaiolako.
Erronka bat dugu hezkuntza-sisteman.
Sistemak benetan zigortzen gaitu gure
hizkuntza hitz egiteagatik, azal kolorea-
gatik; diruzko beste mundu bat agintzen
digu beste bizitza plan bat aurrera era-
maten badugu. Jendeak bere nortasuna
eta sustraiak galtzea besterik ez du egi-
ten. Familia eta gurasoak mundu eta sis-
tema horretan bizi badira, zaila da be-
launaldi berriek bide hori ez jarraitzea.

Beste erronka bat gure hizkuntza-
corpusa zabaltzea da. Gaur egun, fami-

lian, etxean, komunitatean erabiltzen
da. Espazio pribatueta eta familia- eta
komunitate-eskalan. Baina badira tek-
nologiak bezalako gaiak, gauza asko-
ri buruz hitz egiteko hitzik ez dauzka-
gunak; ez dago hiztegiarik. Eta ez dugu
akademiarik hiztegia sortzeko eta es-
tandarizatzeko. Tailerrak egiten ditugu
azaltzeko nawat ez dela bakarrik fami-
liako eta tradizioko gaietarako, eta hori
lantzen ari gara.

**Zer inplikazio ditu digitalizazioak
zuen hizkuntzetan?**

Ondorio asko ditu. Dena gaztelaniaz
ikusten dugu. Eta sentitzen dugu ez du-
gula gure hizkuntza behar mundu ho-
netan bizitzeko. Gaztelania edo ingelesa
ikasita egin daiteke. Ez dago zure hiz-
kuntzan hitz egiteari uzteko esplizituki
esaten dizuten mezurik, baina kontaki-
zun edo logika askok idealizatzea era-
maten zaituzte eta esaten dizute zure
lurraldetik joateko eta zarena izateari
uzteko. Baita haur txikientzako edukie-

tan ere. Ez duzu zure historiako ezer
aurkitzen.

**Zer eginkizun du arteak eta kultur
sorkuntzak zuen komunitateetan?
Hizkuntzaren prozesuekin zerikusia
al dute?**

Ikus-entzunezko baliabideek edukiak
oso modu asertiboan transmititzeko gai-
tasun handia dute. Gaur da film labur eta
dokumental gehien erabiltzen dugun
eguna. Harrapatu egiten du jendea.
Kooperatibatik kanpo, baina gure ingu-
ruan, bada arte galeria bat bere lanetan
identitate zentzua txertatuta daukana.
Cuetzalango herri-ingurunea eralda-
tu dute irudiak eta marrazkiak jarrita.
Modu parte-hartzailean egiten dira; gaz-
teek hitz egiteko balio du prozesuak. Eta
dantza tradizionalen irudiak dira gehie-
netan. Polita da jakitea maitasunez ikus-
ten ditugula sustraiak eta artea egiteko
balio digutela. Cuetzalan herri turistikoa
da eta irudi hori ematen zaie bisitariei.

**Nola ulertzen duzue sustraien aldeko
borroka eta beste eragile batzuekin
garatzen dituzuen nazioarteko
harremanak?**

Truke hauek ikuspegia zabaltzeko
leihoak dira. Nahiko ohikoa da gertatzen
zaiguna gertatzen zaien bakarrak garel-
a sinestea eta ikuspegi ilusionagarriak ez
aurkitzea. Mexikon antzeko errealtatea
dagoelako. Baina munduaren beste al-
dea ezagutzean, desberdintasun guztien
gainetik, zeure burua ezagutzen duzu
pertsonek guztiz desberdinekin egindako
harremanekin. Planeta hobeto ulertzera
eramaten zaitu, munduari buruz duzun
ikuspegia osatzera. Eta pentsamenduak
eraldatzen zaitu, prozesu mental batean,
eta gero zure pertsona eta etxean egiten
duzuna iraultzeko aukera ematen dizu.
Antolamenduari dagokionez, beste ko-
kapen bat eman digu prestigio mailan,
beste bitarteko batzuk baloratzeko eta
eskuratzeke. Ikusi dugunaz gain, ikusi
gaituzte. Eta horrek aukera berriak sor-
tzen ditu. ●

BABESLEA:




**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**

**hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera...**

arnasa gara, euskaraz gara!

Zeri egiten zioten barre erromatarrek?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Erroma, 192. Marko Aurelio Komodo enperadoreak ikuskizun handia antolatu zuen 50.000 ikuslek betetako Koliseoan. Komodok ikuskizuneko protagonista izan nahi zuen eta, horregatik, aurrez hilzorian utzitako hartz batzuei lantzak jaurti zizkien, sareetan harrapatutako beste animalia batzuk hil zituen eta haren aurka inolako ahaleginik egin ez zuten gladiadore batzuk ere mendeen hartu zituen. Erakustaldi ahaltsu eta heroikoa behar zuen, baina emaitza barregarria izan zen. Eta enperadoreak lehen lerroetako patrizioei ostruka baten buru odoleztatua erakutsi zienean, barrez lehertzeko zorian egon ziren senatariak –*vehementius risimus* esango zuketena haiek–. Beste enperadore batzuek ondo hartzen zituzten haien kontura herritarrek botatzen zituzten algarak, bereziki Augustok, baina Komodo ez zegoen horien artean. Horregatik, senatariak barrearari eutsi behar zioten, ostruka hark bezala bukatu nahi ez bazuten. Haietako batek, Kasio Dioneke, buruan zeraman koroari erramu hostoak kendu zizkion, ahoan sartu zituen eta mastekatzeari ekin zion, barrez lehertu baino lehen. Kasio eta gainerako senatariak onik atera ziren Koliseotik; Komodo handik gutxira hil zuten.

Pasarte hau Kasio Dioneke berak kontatu zuen Erromako historiari buruz idatzituen 80 liburukietatik azkenekoan. Eta duela urte batzuk Mary Beard historialari ezagunak jaso zuen *Laughter in Ancient Rome* (Barrea antzinako Erroman) lanean. Beard Erromari buruzko lan dibulgatzaile eta entretenigarrienetarik bat da ezaguna, baina juxtu umoreari buruz hitz egiteko inoiz baino serioago eta akademikoago jardun zuen: antzinako testuak aztertu, txisteetako hitzen etimologia bilatu, erromatar umoreari buruzko beste lan teoriko batzuk azaldu eta ezbaian jarri ditu.

Aztertutako testuen artean IV. mendeko *Philogelos* bilduma dago, orain arte aurkitu den txiste bildumarik zaharrena. Grezieraz idatzita egon arren, Erromako 265 txiste jasotzen ditu. Hauxe da horie-



NAPOLIKO MUSEO ARKEOLOGIKOA

tako bat: “Nola nahi duzu ilea moztea?” galdetu zuen ile-apaintzaileak, eta bezeroak erantzun, “Isilik!”.

ANTZINAROKO UMOREA, GAUR ARTE

Adibideari erreparatuta, ez dirudi 2.000 urtetan txisteak asko aldatu direnik. Txiste onak eta txarrak botatzen zituzten, gaur bezala, eta Zizeronerek berak aholkatzen zuen tarteka txiste txarrak botatzea, txiste onak gehiago nabarmendu zitezen. Garai hartan Abderako biztanleen lepotik egiten zuten barre nagusiki, eta egun, Traziako hiria desagertuta, beste toki batzuetako biztanleak hartu ohi ditugu biktimatzat; eunukorik ere ez dago gaur egun, baina ustezko maskulinitate gabeziak oraindik grazia egiten die batzuei. Gizarte oso mi-

soginoa zen Erromakoa, eta emazteei tratatu txarrak ematen dizkieten senarrei buruzko txisteren bat, esaterako, iritsi zaigu. Txiste arrazistak egiteko ohiturarik, aldiz, ez zeukaten. Antzinako Erroman ez zegoen arrazakeriarik, zentzu kolonialistan behintzat. Berdin zitzaien norbaitek Asian, Afrikan edo Erroman bertan jatorria izatea; axola zuena klase soziala zen. Arrazista ez, baina zeharo klasista baitzen inperioa. Hala, gustu txarreko txisteak egiten zizkieten azpitik zeuden guztiei: pobreei, esklaboei, emakumeei...

Baina alderantziz ere gertatzen zen. Gaur egun bezala, boteretsuen bizkar barre egitea haien kontrako armetako bat zen, maiz bakarra, tarteka erramu hostoak irenstea beste erremediorik ez zuten arren. ●

IRRATIAKOLABORAZIOAK



ARGIA uhin bidez ere hedatzen da

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Tokatu zitezake akaso, irakurle, ARGIAko kazetari edo kolaboratzailearen bat irratan entzutea. Ez da kontu berria. Saio bat baino gehiagotan hartzen dute parte etxe honetako lagunek; txandaka eta modu konpartituan. Lehen batzuk, orain besteek. Aldatzen joaten dira hizlariak, saioak, egun eta orduak, emisoreak. Non aditu ahal izango dituzun aurretik? Beheraxeago azalduko dizut.

ARGIAk publikatzen dituen erreportajeak, artikulak eta elkarrizketak komentatzen dituzte saio hauetan. Interesatzeko ARGIAri eduki horiek tokiko irrati-tan zabaltzea, egiten duen lana ahalik eta jende gehienarengana iristea baitute helburu. Lizentzia librearen eta parte-katzearen kulturarekin erdiz erdi jotzen du, gainera. Elkarlanak irrati ere egiten die mesede, noski, euren programazioak gai interesgarriak osatzeko beste aletxo bat baita.

Kolaborazio finkoak daude, alde batetik. Horrez gain, behin baino gehiagotan

tan deitu izan dute irratsaio desberdinetatik erreportaje edo artikulak zehatz baten inguruan hitz egiteko. Eta ez da hor bukatzen, Arrosa Sarearen bitartez ere aukera dago zenbait irratsaio Euskal Herri osoko txokoetan aditzeko; ARGIAk egiten duen *Beranduegi* podcasta kasu.

KOLABORAZIO FINKOAK

Hala Bedi irrati *Hizpidea* saioan Urko Apaolazak hitz egiten du astearteetan goizeko 8:30ean. Hiru erreportaje edo albiste nabarmendu komentatzen dituzte normalean. Antzeko lana egiten du Jon Tornerrek irrati bereko *Zebra-bidea* saioan asteazken arratsaldeetan, 16:00ak bueltan.

Xorroxin irrati ere Torner bera aritzen da asteazken eguerdian grabatu eta arratsaldean emititzen duten emankizunean. Kasu honetan lau dira lantzen dituzten artikulak edo erreportajeak.

Lanaren ekonomia irratsaioan, Bilbo

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Hizkuntza, independentzia, creative commons lizentziak, antolakuntza, balioak...”

Erreterriako Miren

“ARGIA aldizkariak ikuspegi kritikoa eta aberasgarria duela deritzodalako”

Oronoz-Mugaireko Gaizka

“Kazetaritza independentea babestu nahi dudalako”

Aretxabaletako Maier

Hiria irrati, astelehenetan 15:00etan, ekonomiaren inguruan landutako testu bat aukeratzen dute eta horren egileak hartzen du parte solasaldian –ARGIAko hainbat kazetari eta kolaboratzaile aritzen dira honetan–. Peru Iparragirre aditu daiteke irrati berean ostegun eguerdietan, 12:20ak inguruan, *Ibaizabal Magazina* emankizunean. Horrek ere nabarmendutako hiru artikulak edo erreportaje erreparatzen ditu.

Xabier Letonak, aldiz, Euskalerria irratiaren ematen ditu asteazken arratsaldetan, ordu laurden batean, ARGIAren inguruko azalpenak, zer duten eskuartean etab.

Pixkanaka, idatzizkoaz gain, beste formatu batzuetan esperimentatzen eta eskarmentua hartzen ari da lantaldea (irrati, ikus-entzunezkoetan, podcastetan...), jakinekua baita teknologia berrien eskutik doan komunikazioaren munduan bide horiek jorratzea ezin bestekoa dela jendearengana iristeko. ●

Uztaren itxaropenean maiatza gurtzan



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Larrubizirik dagoen mutil gazte batek landatu behar du maiatzaren lehenean egunsentiaren aurretik. Hala diote Europa iparraldean, eta bai, kuiak (*Cucurbita spp.*), era guztietako kuiak dira orduan landatze-koak. Esaerak dio maiatzean noiznahi landa daitezkeela; tokiaren arabera behin izotzaren beldurra joan eta gero. Nik esango nuke elorri zuria (*Crataegus monogyna*) loratu ondoren.

Jai handia da maiatzaren lehena. Nekazari langileen eguna izateaz gain, zentzumenen uda handiari atea irekitzen dio. Egun horrekin Bealtaine jaia ospatzen da herri zeltikoetan, ezaguna batik bat Irlandan. Artzainen udaren hasiera markatzen du,azienda udako larreetara eraman zitekeen hortik atzera.

Geurean ere halaxe izan ohi da. Ez dugu, nire ustez, zeltikoen tankerako jaiegun berezirik, baina goi mendietako udako larreen irekiera ospatzen da maiatzaren lehenarekin. Atzeraazienda larri eta xehe, denetatik ikusiko dugu larre publikoetan bazkatzen. Artzainek diotenez, hasiera horretan jandako lehen belar horrek eta goi mendietako giroak egiten omen dituzte ardi gaztarik onenak.

Maiatzak nekazariaren zaindariaren eguna ere badakar, 15a, sanisidroak. Itxuraz santututako Isidro izeneko nekazari mozarabiar bati zor zaio. Uarerekin eman-hartu berezia behar zuen izan: ur-aztia zen, hau da, ura topatzeko zuloa non egin behar zen asmatzen zuen, putzugilea eta batez ere eurigilea. Gerora azken horri zor zaio nekazariak dioten gurtza. Uztetarako ur eskean egingo diren errogatiba gehienak berari eske egiten zaizkio. Ugariak dira gure herrian santutu zuten horri eskainitako ermitak: Arasen, Anueko Burutainen,



Aurten Bakaikuko gazteek Arzabalgo mendi tontorrean jaso duten maiatza.

Zeanurin, Zornotzako Garaitondon, Mutrikuko Olatzen, Getariako Meagasen, Oñatiko Otaduin, Kasedan, Arrasateko Musakolan, Balmasedako Pandozalesen, Eltzaburun eta abar seguru luze bat. Bi aipatzekotan, lehena Errezilgo Erdoiztakoa toki paregabea dago, eta zeharo borobila da, Pedro Manuel Ugartemendia arkitekto andoaindarraren gidaritzapean 1808an eraikia. Paisaia berezia, neurri izugarriko elorri zuriz (*Crataegus monogyna*) inguratua, horien loraldiak udaberria ederki markatzeko. Bigarren Deikazteluko partekoa, Allotik Sesmarako bide inguruko soro artean, aspal-di abandonatua eta itxuraz barrualdea pertsona eta animalientzako aterpe gisa erabiltzen da egun. Soro artean dabil-tzan pertsona eta aziendetzako aterpe, zer laguntza hobe eman dezake nekazari-rientaluak?

Maiatza maiatzarekin hasten da. Maiatza herri gutxi batzuetan gordetzen den ohitura zahar bat da. Herriko kin-

toek mendian aurkitzen duten zuhaitz lizar edo tantai luze eta zuzenena moztu, adarrak kendu, zuritu eta herriko plaza-ramaten dute. Han muturrean lore sorta bat eta abar eransten zaizkio eta nola hala, ikaragarritzko teknika zehatzarekin zutitu eta eusten da. Egiten den herrietan ikaragarritzko jaia da. Nafarroan ezagutzen dut nik: Iturmendi, Etxarri Aranatz, Bakaiku, San Martin, Larraona, Zudaire, Murieta, Barillas eta abar. Aurten bereziki ezaguna egin da Bakaikuko gazteek Arzabalgo mendi tontorrean jaso duten maiatza. Bideo ikusgarri bat osatu dute, eta gogotik ibili da telefonoz telefono, barra-barra. Maiatzaren ereingo diren uztak babestuko dituela uste dute; Bakaikukoa pagoa (*Fagus sylvatica*) da, baina makala (*Populus nigra*), ler gorria (*Pinus sylvestris*), sahatsa (*Salix spp.*) eta abar ere erabiltzen dira.

Maiatza gurtzan, uztaren itxaropena, eta gazteak landatzen eta eraitsitako zuhaitzak zutitzen. ●

BELAZE

BASERRITIK BIZI, SISTEMA TRADIZIONALAK
ETA BERRIAK LOTUZ

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

El orriko Zenita auzoko Zenitaldekoa baserrian bizi dira Markel Garaizabal Buldain eta Berenice Lopeiz Reyes. Baserrian, eta baserritik. “Duela hamar bat urte hasi ginen familiako baserrian lanean, hasieran batez ere ortuan. Gerora, bi urtez bidaiatzen egon ginen, baina handik bueltan, apustu serioagoa egitea erabaki eta esne behiak ipini genituen”. Horrela azaldu ditu Garaizabalek gaur egun Belaze izena daraman proiektuaren hastapenak. Jogurta eta gazta freskoa dira gaur egun haien ekoizpenaren zati garrantzitsuenetakoa, baina ez bakarrik. Baratzearekin, fruitu-arbolekin eta bestelako abereekin ere jarraitzen dute, dibertsifikazioa oinarri.

“ABELTZAINZA BIRSORTZAILEA”

Baserri tradizionalaren formatuari eutsi diote bi gazteek, denetik pixka bat eginenez: ortua, behiak, txerriak, oiloak, fruitu-arbolak... Eredu ekologikoan egiten dute lan, nahiz eta ekoizpen esparruren batean zigilurik ez izan, txerrietan eta oiloetan, adibidez. “Gauza asko lehenago moduan egiten ditugu, baina saiatzen gara teknika berriak ere erabiltzen”, dio. Berrikuntza horien artean nagusia, “abeltzaintza birsortzailea” deritzona dute.



Honela azaldu du ekoizleak, hitz sinpleekin, zer den: “Oinarrian, zelaia zati txikietan banatzean datza, eta partzela bakoitzean egun bakarra egiten dute behiek”.

Zergatik ari dira eredu horretan? Produktibitate aldetik eta baita lurrari begira ere, sistema horrek onurak besterik ez dakartzala dio bizkaitarrak. “Beti abeltzaintza estentsiboaren ereduaz hitz egin dugu, baina teknikoki hori ere ez da guztiz positiboa, lurrari begira batez ere, gehiegizko ustiatzea ematen baita”. Belazekoek darabilten teknikarekin, partzela bakoitzak inpaktu handia izaten du, bai-

na denbora tarte oso txiki batez, eta deskantsurako eta berriz errekuiperatzeko denbora nahikoa emanez. “Belarrak indarra gordetzen du sustraietan, eta behia zati horretara bueltatzeko birsortzeko tartea izan du”, dio. Aldi berean, behiarrentzat onuragarria da egunero partzela berri batean belar fresko eta berria jatea, eta ongarria uniformeago banatzeko ere balio du sistema honek.

BISITAK, BASERRI MUNDUA EZAGUTZERA EMATEKO

Baserrian bertan dute Belazeko kideek transformazio gunea, eta gaur egun dituzten zazpi behietatik ateratzen duten esne guztia bertan eraldatzen dute. “Produktzio txikia da gurea, 70 litro inguru ateratzen ditugu egunean”, dio. Zuzeneko salmenta bidez edo hurbileko dendetan saltzen dituzte haien produktuak, eta baserrian ere badute dendatxoa, astean bi egunetan eta bisita gidatuetan zabaltzen dutena.

Izan ere, Garaizabali eta Lopezi hirugarren kide bat batu zitzaizen iaz, baserriko bisita gidatuez arduratzeko. “Gure beste helburuetako bat da baserri mundua jendeari ezagutaraztea, eta hau benetan aukera profesional bat izan daitekeela erakustea”, dio. ●

ekainak 5,
ingurumenaren
nazioarteko eguna



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikokoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi



Europar Batasuna
Lurra, Ingurumen eta Elikadura
Ministerioak
Eusko Jaurlaritzaren Gobernua

Austerlitz, memoriaren korronte ezkutak

Idoia Santamaria

Itzultzailea

